



(H) *h* FRANKEO KONTZERTATU
UROLAKO GAY ETA LESBIANEN ELKAR
Posta Kutxa 273
20730 Azpeitia

HERRIRA DANBORRADARA

San Sebastianetan hainbat lagun etortzen da danborradan parte hartzera • Bi talde berri daude: Oilo-Soro eta Musika Eskola (22-27)

MUTILENTZAKO DENDA BERRIA

Ildefonso Gurrutxaga, 5 ♦ Tel. 943 08 03



merkealdiak

urtarrilaren 7tik aurrera

CHÉVIGNON

CUSCINO

DOCKERS

GAS
Keep it simple.

level

MOHAVE

Punto Blanco

SIXTY
Somebody's watching you

SWEATER HOUSE



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tínoa. eta Faxe: 943 15 05 10


mugi
kirolak

Ez egon geldirik!



Enparan kalea 8. Tel. 943 - 151004

Udalek zeresanik eduki dute azken hamarkadetan Euskal Herriaren eraikuntzan, eta Azpeitikoak gertutik eta modu zuzenean parte hartu izan du

AZPEITIKO UDALA ETA NAZIO ERAIKUNTZA

'Imanol
Lazkano. Aho
bizarrik gabe'
liburua
(18-19)

Maje
Larrañaga,
mendizaleen
lehendakari
berria (34)




Klik! Herrian
2004rako
ateratako
hiru egutegi
(36-38)

iraila 2004

		1	2	3	
6	7*	8	9	10	
13	14	15 ¹	16	17	
20	21 ^o	22	23	24	
	28	29 ³	30 ⁴	31	

Hantxe bertan.
Olatz Arregi,
Alemanian
(42)

uztarrria



Goi-goian, Casto Orbegozo, 1931n Azpeitiko alkate zena. Haren ondoan, Jose Antonio Oiarzabal, herriko lehen alkate abertzalea. Beste bi argazkietan, 1931n Lizarran udalek estatutua onartzeko egindako batzarra.

Enekoitz Esnaola

Lizarra-1931, Bergara-1976 eta Bilbo-1999: hiru toki eta hiru urte interresgarri eta garrantzitsu Euskal Herriko udalen historian. 1931n Lizarran Hego Euskal Herriko estatutua onartu zuten, 1976an Bergaran 1931ko estatutaren antzekoa eta foruak eskatu zituzten, eta 1999an Bilbon Udalbiltza, aro moderno-ko lehen erakunde nazionala sortu zuten. Eta hiruretan presente izan da Azpeitiko Udala. Orain, 1999an zabaldutako bidean segitzen du, eta EAJk eta EAK kudeatutako Udalbiltzako lehendakari izendatu berri du te Julian Eizmendi (EAJ), Azpeitiko alkatea.

1931n Casto Orbegozi alkatea egon zen udalen orduko mugimenduan sartu-sartu eginda. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako alkateek, Eusko Ikaskuntzaren gerizpean idatzia zegoen autonomia estatutua oinarri hartu eta adituen esparrutik plaza publikora atera zuten, batez ere Espainian 1931ko apirilaren 14an I. Errepublika aldarrikatu ostean; Espainiako Estatua eta Hego Euskal Herria modu berrian egitura-tzeko aukera zabaldu zela zioten alkateek. Orbegozi bera, Errepublika aldarrikatu eta hiru egunera, Azpeitiko alkate jarri zen berriro —aurretik beste bi alditan izana zen: 1922-1923an eta 1924-1925ean—, eta, Gipuzkoako batzordeko kide ez ezik, Hegoaldeko batzordeko kide izendatu zuten segituan, Getxoko alkatearekin (Jose Antonio Agirre, gero Eusko Gobernuako lehendakari izan zena), Zangozakoarekin (Agustin Blanco) eta Laudiokoarekin (Guillermo Ruiz) batera —lehenago Getxo, Gernika, Elorrio eta Bermeoko alkateek osatu zuten ▶▶

» batzordea, behin-behinekoa—. 1931ko maiatzaren 27an, "Hego Euskal Herrirako estatutua onartu eta aldarrikatzeko asmoz", udal guztien batzarra deitu zuten Orbegozok eta konpainiak, Lizarran elkartze-ko, ekainaren 14an.

529 udaletik 485ek onartu zuten estatutua. Azpeitiko Udalak sei egun lehenago Eusko Ikaskuntzak prestatutako euskal estatutuaren aurreproiektua jaso zuen, lehen aipatutako udalen batzordeak sinatutako gutunarekin batera, eta Casto Orbegozo bera eta Silvestre Madrazo zinegotzia izendatu zituen herriko ordezkari, herriaren ize-

nean estatutuari baiezkkoa emateko, Imanol Eliasen *Azpeitiko efemerideak* liburuan ageri den bezala. Estatutu hura, Telesforo Monzon, garaiko eta ondorengo politikorik garrantzitsuenaren esanetan, inportantea zen: "Penintsulako Euskal Herriko lau herrialdeentzat egina, bertan Euskadiri estatu subirano baten ahalmen guztiak ematen zitzaizkion, salbu armada, moneta eta atzerriko ordezkaritza".

1931n ezezkoa eman zuten artean ezker-tiarrak eta Espainiako Errepublikaren aldeko udalak zeuden —hauen artean lau hiri-buruetako errepublikarrak—, eta hutsune

hori funtsezkoa izan zen gero. Lizarrako batzar hura baino lehenago Azpeitian egin zen bilera batek bere garrantzia eduki zuen, bertan estatutuaren aurreproiektuari emendakin batzuk egin zitzaizkiolako eta Orbegozo alkateak —karlista zen— zera eskatu zuelako ekainaren 14 hartan Lizarran: autonomia estatutuak Vatikanoarekiko harreman zuzenak edukitzeko ahalmena Euskadirentzat gorde behar zela. Karlista guztien nahia zen hura, abertzaleena ere bai, eta onartu egin zen emendakina. Ez zen, ordea, Espainia-zale ezkertiar eta errepublikanoen gustukoa. Hauek, irailaren

UDALBILTZA, BI AURPEGI

Udalbiltzako bi errealitate: Julian Eizmendi lehendakaria da eta Miren Odriozola Udalbiltza legez kanpo utzi arte Nazioarteko Batzordearen arduraduna izan zen

Nerea Uranga

Nazioa, Euskal Herria; erakunde nazional bakarra Udalbiltza, zatituta; herri bat Azpeitia; bi aurpegi. Bata, Julian Eizmendi (EAJ) Azpeitiko alkatea eta Udalbiltzako lehendakaria. Bestea, Miren Odriozola Habea legez kanpo utzitako plataformakoa, eta Udalbiltza Baltasar Garzonek legez kanpo utzi aurretik (2003ko apirila) Batzorde Eragileko kide eta Nazioarteko Batzordearen arduraduna zena. Biak azpeitiarak eta biak eza-gutzen dute gertutik Udalbiltza.

Eizmendik, iaz azaroaren 8an hartu zuen, Basaurin, Udalbiltzako lehendakari kargua. "Udalbiltza udal hautetsiek osatzen dutenez, udal hauteskundeak pasatu ondoren EAJko eta EAKo exekutibek erakundeko zuzendaritza berritzea adostu zuten. Zuzendaritzan nik hartu nuen lehendakari kargua eta

Debako alkateak lehendakariordekoa. Alkate askok ditugu alkatetzaz gain beste hainbat erantzukizun (Eudelen, Batzar Nagusietan, Patzuergoetan...). Alderdiak ni Udalbiltzako lehendakari kargurako hautatu ninduen", esan dio Uztarriari. Dagoeneko Udalbiltzako Zuzendaritza Batzordeko bilera eta ekitaldietan izan da: 2003ko abenduaren 2an, Euskararen egunaren bezperan, Iruñean hitzarmen batzuk sinatzen, eta 14an, Donibane Garaziko ikastolaren inaugurazioan. "Talde bat osatu dugu eta hari tokatuko zaio eguneroko lana egitea. Guri irizpideak ezarri, gainbegiratu eta erabakiak hartzea dagokigu".

2003ko apirilean Miren Odriozola kide zen Udalbiltza legez kanpo utzi eta zuzendaritzako zenbait kide eta langile kartzele-ratu zituzten. "Oraindik hamar lagun kartzelan daude Udalbiltzako kide eta langile izateagatik", gogorarazten du Odriozolak. Nazioarteko Batzordearen arduradun zen eta, ondorioz, Euskal Herritik kanpoko estaturik gabeko nazio eta herrialde askoren berri izan du. "Europa mailan beste estaturik gabeko nazioetako jendearekin harremana genuen. Eta lehendakariak, Loren Arkotxak, Nazio Batuetan beste gobernuetako kideekin-eta harremana zuen Euskal Herriko prozesuaren berri emateko. Europatik kanpo, 2002ko abenduan autodeterminazioa ardatz hartuta antolatu genuen konferentzian ere mundu

“Gure helburua Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea da, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik”

Julian Eizmendi
(Udalbiltzako lehendakaria)

25ean Madrilén Gorteetan autonomiei buruzko Konstituzioko artikulua eztabaidatu zenean, garbi esan zuten ez zutela Azpeitiko alkateak egindako eskaera onartuko: "Jaun euskaldunak, autonomia nahi baduzue, Espainiako Errepublikak finkaturiko baldintzapean izan beharko du. Vatikanuari buruz ez dago gehiago hitz egiterik". Espainiako eskubia ere estatutu haren kontra zegoen, "laikoa" zelako, "Jainkoaren izena agertzen ez" zelako. Monzonek berak esan izan zuen orduan "itxi" zitzaizkiola Lizarrako estatutuari "ateak betiko".

Azpeitiko alkatea, aurretik, beste euskal

ordezkari batzuekin batera, Madrilén izana zen, hara antolatutako tren berezi batean joanda, baina alferrik.

IRUÑEA-1932. Abertzaleak hurrengo hilabeteetan ere saiatu ziren estatutua aurrera atera nahian, baina 1932ko ekainaren 19an, Iruñean, Nafarroa gabe gelditu ziren, Espainia-zale ezketiar eta eskubikoen presioen ondoren Nafarroako udalen gehien-goak ezezkua eman zuelako —aurretik hiru aldiz alde agertu izan zen, gehiengo oso handiz gainera—. Bilera garrantzitsu hartan zen Casto Orbeagozo.

1933ko azaroaren 5ean, Espainian bote-rean eskubia jarri baino zertxobait lehenago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako estatutuaren —edukietan ere murriztua—erreferenduma egin eta erroldaren %84 alde agertu zen. Orduan Jose Antonio Oiarzabal zen Azpeitiko alkatea —herriko lehen alkate abertzalea— eta berak esan zuenez, egun hartan azpeitiarren %98 estatutuaren alde azaldu zen, *Azpeitiko efemerideak* liburuan azaltzen denez; "udaletxeko balakoian Espainiako bandera ez ezik, ikurrina zintzilikatzea ere erabaki zen".

Baina estatutu hura 1936. urtean jarri zen »

osoko estaturik gabeko herrien errealtatea ezagutzeko aukera izan genuen. Euskal diasporako jendearekin ere harremanak izan ditugu".

NAZIO ERAIKUNTZA. Euskal Herriko erakunde politiko bakarra da Udalbiltza, herrietako udal ordezkariak osatua. Eizmendik hala dio: "Euskal Herrian sinesten dugu. Udalbiltzan sei lurraldeetako udal hautetsiak ditugu eta gure helburua Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea da, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik. Naziogintza integratzailea, pertsonetikiko eta lurraldeetikiko errespetuan oinarrituta eta hiritarren borondate askean eraikia, behetik gora. Lurraldetasuna ez dago herritarren borondatearen gainetik inposatzerik; printzipio hori estatuek errespetatzea eskatzen ari baldin bagara, guk ere gure nazio eraikuntzan errespetatu beharra daukagu". Odriozolak, Udalbiltza sortu zenean jarritako bost helburuak ditu gogoan: "Udalbiltza legez kanpo utzi diguten arte sorreran jarritako bost helburuak oinarri hartuta egin dugu lan. EHNA bultzatuz, autodeterminazioaren inguruko konferentzia antolatuz, herrien arteko anaikidetzak lortuz, Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren proposatuz, auzolana bultzatuz...".

Bien iritziz Azpeitiak asko du aportatzeko Udalbiltzan. Eizmendiren aburuz, "Azpeitia, tamainu batetik gorako udalerriekin alderatuta, Euskal Herriko herririk euskaldunena eta abertzaleena genuke. Euskararik gabe zaila da abertzaletasuna mantentzea eta abertzaletasunik gabe ez da lortuko sujetu politiko bakarreko Euskal Herri". Odriozolaren iritziz, Azpeitiak Udalbiltzan lan egiteko arlo guztietan "oso baldintza onak" ditu. "Udaletik bertatik lan asko egin daiteke. Esaterako, Hazparneko herriarekin anaikidetzan lan eginez".

Udalbiltza sortu zenean, 1999ko irailaren 18an, Euskal Herriko alderdi abertzale guztien partaidetza zuen, eta 1999ko aben-

duan ETaren su-etena bukatu ondoren Udalbiltza bitan zatitu zen. Eizmendik Udalbiltza zatituta dagoela hartu du lehendakari kargua. "Indarkeria politikoaren aurrean genuen postura desberdinak zatitu ginen. EAJk eta EAK orduan erabaki zuten EHkoekin elkarlanik ez egitea. Abertzaleen arteko zatiketan tokatu zait kargua hartzea. Ea aurreko denborak itzultzen diren", dio Eizmendik.


Odriozolaren ustez, Udalbiltzak alderdi politikoen "gainetik" egon behar du. "Bat izan behar du eta indarra sorrerako bost puntuei eman behar zaie. Badaukat itxaropena, une historiko interesgarria bizitzen ari baikara eta jendea mugitzen ari da. Herritarren artean ere gogo izugarria dago. Proiektu desberdinak ere badaude: Ibarretxeren Plana, Beterarena, Nazio Eztabaidaguneko Foroa... Mugimendua badago, elkarriketak badaude eta hori da lehen pausoa".

Bi elkarriketak osorik
www.uztarria.com helbidean

“Udalbiltza legez kanpo utzi diguten arte sorreran jarritako bost helburuak oinarri hartuta egin dugu lan”

Miren Odriozola
(Udalbiltzako zuzendaritzako kide ohia)





Goi-goian, 1976an Bergaran udal ordezkarien artean egin zen batzarra; han ziren Azpeitikoak. Argazki horren behean, ezkerrean, Jose Mari Bastida, Bilbon, 1999ko irailaren 18an, Udalbiltza sortu zen batzarrean (herriko alkatea zen orduan Bastida). Horren eskubian, Julian Eizmendi, Azpeitiko egungo alkatea, 2003-11-08an, Basaurin, Udalbiltzako presidente izendatu zutenean. Eskubi-eskubiko argazkian, Miren Odriozola, Udalbiltzako ekitaldi batean.

» martxan, Espainiako II. Errepublikaren garaian. 1936ko otsailean errepublikazaleak boterera igo ziren berriro, eta Azpeitiko Udalak Manuel Azaña, Espainiako Errepublikako presidenteari, "zorionak" emateaz gain, estatutua ontzat hartzeko erregutu zion. Herrian alkate atzera Oiarzabal zen; bi urte lehenago kargutik inhabilitatu egin zuten, kontzertu ekonomikoa eta herrien autonomia defendituz indartsu jokatzegatik.

1936a bitartean, estatutua "arrastaka" ibili zen, orduko zenbait politikarik zioten bezala. Gainera, 1936ko uztailaren 18an Espainian *altxamendu nazionala* egon zen, 1933ko estatutua bertan behera geratuz.

BERGARAN. 40 urtera, 1976an saiatu ziren udalak berriz ere Hego Euskal Herrirako eskumenak lortzen. Franco, Espainiako diktatorea urtebete lehenago hil zen, eta demokraziarako trantsizioa egin nahi zen garai hartan. 1976ko uztailaren 21ean, Bergaran bildu ziren udal ordezkariak, Jose Luis Elkorok (Bergara), Imanol Murua (Zarautz), Inazio Iruin (Hernani) eta Iñaki Aristizabalek (Oiarzun) osatzen zuten taldeak deituta. 2002an Mailo Oiarzabalek idatzi eta Uztarriak argitaratu zuen *Imanol Elias* biografian azaltzen denez, "1976ko martxoaren bukaeran, Elkorok abertzalea Bergarako alkatetzara iritsi berria zela, Bergarako Udalak gutun bat igorri zion Juan Carlos I.a Espainiako erregeari. Araba, Biz-

kaia, Gipuzkoa eta Nafarroa euskal probintzietan 1876ko uztailaren 21eko legeak ezereztatu zituen foruak itzultzeko, eta 1931an Lizarran euskal udalerriek onartu zuten Autonomia Estatutuaren antzeko proiektua martxan jartzeko eskatzen zuen gutunean Bergarako Udalak. Giro horretan, Alkateen Taldea herriz herri bilerak antolatzen joan zen, udalak demokratizatu behar diren premia nabarmenduz, eta presioaren beharra aldarrikatuz (...). Azpeitiko Udalak ere hartzen zuen parte Alkateen Taldearen bileratan".

Alkateen eta udal ordezkarien mugimenduen ekintzarik adierazgarriena 1976ko uztailaren 21ean egin zen, Bergaran. Agustín Prat, Iñaki Urkia, Manuel Altuna *Kanpaxa*, Lorenzo Soraluze, Tomas Bereziartua eta Imanol Elias izan ziren han egon ziren udal ordezkari azpeitiarrak. "Orduantxe ikusten zen han mugimendu bat, zerbait sortzen ari zela herrian, ikaragarria. 'Hemen zerbait bazetorrek, eta handia', pentsatu nuen. Ordu arte ez genuen halakorik ezagutzen, hango jendearen berotasun hura, han esan zirenak... Gauzak beste martxa batean zetozela ikusten zen", esaten du Imanol Eliasek bere biografian.

1979ko urriaren 25ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako estatutua onartu zen; Nafarroa atzera kanpoan gelditu zen... edo utzi zuten.

1999-AN. 1999an hartu zuten euskal udalek berriro protagonismoa, eta Azpeiti-

koak azkeneko saioan ere parte hartu izan du. Urte hartako irailaren 18an, 1998ko irail-leko Lizarra-Garazi akordioaren ondorioz, Udalbiltza, aro modernoko lehen erakunde nazionala sortu zen, Bilbon, Euskalduna Jauregian egindako batzarrean, eta han izan ziren Azpeitiko EAJko, EHko eta EAKo zinegotziak eta Jose Mari Bastida alkatea (EAJ). Handik aste batzuetara, Udalbiltzaren aldeko mozioa onartu zen Azpeitiko Udaletxean. "Udal hautetsiek eta udalek babestu, indartu eta garatu behar dugu Udalbiltza, gure erakunde nazionala (...). Euskal Herriko udalen arteko harremanak sakontzeko, senidekidetzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko sortu da", zioen mozioak.

Uztarriak 1999ko azaroaren atera zuen aldizkariaren 1. zenbakia, eta orduan Udalbiltzari buruz egindako erreportajearen, Bastidak zioen Azpeitiko Udalak "asko aporta" zezakeela, "beste edozeinek baino gehiago". Javier Beobide, EAKo zinegotziak, berriz, Azpeitiak "Udalbiltzako zenbait arlotan zeresanik" edukiko zuela esan zuen. Eta Miren Odriozola, EHko zinegotziak "garrantzia" eman zion erakunde nazionalari, "Euskal Herriaren gorpuztea bideratzeko sortu" zelako.

Bastida Udalbiltza sortu aurreko Batzorde Iraunkorreko kide izan zen, baina Odriozola izan da Azpeitiko Udaletik Udalbiltzan gehien parte hartu duen zinegotzia, hasieran EHko bezala eta gero Sozialista Abertzaleetako ordezkari; eta, batez ere, ETAren su-etena bukatu ondoren (1999ko abendua) Udalbiltza bitan zatitu zenetik. Ezker abertzaleak kudeatutako Udalbiltzako zuzendaritzako kide izan da Odriozola, eta han eta hemen ibili da (Brasilen, Argentinan, Italian...) Udalbiltzako nazioarteko taldeko arduradun, Espainiako Justiziak 2003ko apirilean ezker abertzalearen Udalbiltza legez kanpo utzi zuen arte. "Espainia Euskal Herriaren kontra ari da, berriro frogatu den bezala", zioen orduan Odriozolak.

Orain beste azpeitiar udal ordezkari bat dago Udalbiltzako zuzendaritzan: Julian Eizmendi alkatea. EAJren eta EAren Udalbiltzako lehendakari da, hain zuzen, 2003ko azaroaren 8tik, Jon Jauregi, Beasaingo alkatearen (EAJ) ordezkari. Basaurin izendatu zuten presidente; Euskal Herriko 245 herri ordezkarien zituzten 400 bat hautetsi bildu ziren hango Sozial Antzokian, EAJ eta EAKoak, eta aho batez onartu zuten. Eizmendik, kargu berria hartu ostean, erakundea "berritu eta sendotzeko" konpromisoa hartu zuen. EAEko estatutu berri-rako proposamena gogoan izan zuen, eta egunerokolanetik hasita "euskal nazio erakuntzan sakontzeko konpromisoa" azaldu. ●

BERTAKO HARAGIA...



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOTIA
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98




bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA




**Harategia
Odriozola**
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



IBSan Sebastián

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA




KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFNOA.: 943 811671

...GURE

HARATEGIETAN



EUSKO LABEL



amuko zubitik Aitor Aranguren



ADIBIDEZ, IZAZPIKO BASOA

Ariketa bat egin dezagun. Azpeitiko udaleko mapa hartu eta kendu ditzagun herriko etxeak eta industria, bideak, auzoak, baserriak, gizakia... Eta bost minutuan, begiak itxita, irudikatu dezagun zer gelditzen zaigun: mendiak, zelaiak, basoak, ibaiak, errekak, animaliak. Ederra, ezta? Hori guztia ere Azpeitia da, eta seme-alabei utzi behar diogun ondarea, ahalik eta baldintza onenetan. Baina ondare hori oso sentikorra da, eta gizakia espezializatu egin da ingurune horiek gaizki tratatzen eta deusestatzen.

Udalan egin dira dagoeneko ingurune naturaleko hainbat azterketa, eta badago altxorrik; adibidez, Izazpiko basoa. Oso maldatsua den eremuan, 70 hektareako baso hori berez etorri da, eta, ondorioz, zuhaitz gehienak oso gazteak dira; baina, espezie-aberastasuna handia du, 21 zuhaitz mota ezberdin identifikatu dira-eta. Denbora laburrean ezaugarri horietako basoek interes naturalistiko handia izan deza-

kete. Zer egin behar den? Erraza: babestu eta kontserbatu. Egia da, ez da Iratiko basoa. Eta zer! Kontua da denok Izarraitzera begira gaudela, txotxolotuta. Hori bai, bost axola zaigu antena handi bat Erlo puntan izatea, autobidea goraino, asteburuan autoak goian, jatetxe bat San Inazio ondoan, higadura-prozesu inportanteak Azketa inguruan... Baina Izazpirekin alderatuz Izarraitz katalogatuta dago, ordenatzeko eta kudeatzeko planaren oinarriko dokumentua egina dago, lur asko erosi ditu Udalak, eta hori bultzatzeko lau Udal daude atzean (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa eta Deba).

Erabakiak hartzea erraza da. Zer falta da? Nahi izatea eta dirua ipintzea. Udalak lur sail hori erosi eta babesteko asmoa azaldu zuen, eta baita dirua ipini ere 2003 aurrekontuetan, baina alkateak ez zuen gauzatu. Eta oraingo talde berriak? Zein asmo ote ditu 2004an ingurune naturalerako? Azpeitiko hiriaren muge-tatik at mundua ere existitzen da.

azketako ude Kepa Susperregi



KALENDARIO BERRIA

Urte berriari hasiera ematekotan gara. Kalendarario zaharra baztertze-kotan. Igarotako, bizi izandako azken 12 hilabeteen oroi-menez kargaturik ikus genezake: gogoan izango ditugu ezagutu izan ditugun egun argitsuak; estimatzen ditugun pertsonekin izandako harremanak; gure bihotza, espiritua aberastu edota baketu duten hainbat elkarriketa; edota familiakoekin, lagunekin izandako festa-topaketak....

Hori guztia iragana da dagoeneko. Gure historiaren parte bat. Gure bizitzaren liburuan idatzia dago. Ezin dugu ezabatu 2003. urteko atala, kapitulua.

Eguna joan, eguna etorri, amaieraraino iritsi zaigu urte bat gehiago. Agian, ia konturatu gabe. Denboraren joan-etorria, izan ere, jakin-neko uneetan, ezagutzen ditugun gertakizun inportanteetan hartzen baitugu gogoan: gure inguruan norbait jaio edota hiltzen denean;

lanean hasterakoan edota jubilatzerakoan; seme-alabaren bat eskolan hastean, edota unibertsitateari ekitean....

Denboraren joan-etorriaren berri izaten dugu, baita ere, urte zaharra agurtu eta berriari ekitean. Urte sasoi honetan bizitza aurrera doakigula gogoan hartzen dugu. Bizitza azkar doakigula ere konturatzen gara. Horrelaxe entzun ohi dugu askotan gure inguruan... Denbora, bizitza bera da izan ere, gure altxorrik preziatuenetakoa.

Urte zaharraren azken orritxo gorde eta, kalendarario berri bat estreinatuko dugu. Berria dugun urtearen oroigarri. Eskaintzen zaigun bizitzaren oparia oroitzen diguna.

Zuhurtasunez erabili dezagula. Eta urte berriko elizkizunetan entzuten duguna —“Ager dezaizula Jaunak bere aurpegia, eta eman bere bakea”— egia bihurtu dadila guztiontzat.

hiruko txikiyen

Iban Arregi

1 BIOLENTZIAZ. Interegarria uztarria.com orrian piztu den eztabaida, Manoli Urangari eginiko eraso dela eta. Azken batean, etikatik haruntzago ia-ia denak, biolentzia bata edo beste salatzerakoan edo babesterakoan. Etika politikaren menpe, ia-ia beti. Edo galdetu aurten tratatu txarrak jasan dituzten Azpeitiko 26 emakumeei. Ez kontzentrazio-rik, ez kondenarik, ez manifestazio-rik, ez minutuko isilunerik. Urteak isilik biolentzia batzuen aurrean.

2 ZUHAITZA. “Eguberrietako zuhaitzaren sindromea zaukaugu: su-trai faltan, geure burua apaindu”. Zakilixut-ek zioen hori, Berria-n. Hain sinplea eta hain konplikatu... Antzerki Topaketak pasatu berri dira, apain-apain, Goenkale osoa bertan zela; baina justu 2003ko martxoan, herriko antzerki talde historiko bat, Antxieta, desegin egin zen ofizialki. Urteak zeramatzen geldirik, entseiatzeko lekurik ere ez zuen eta. Eguberrietako zuhaitzaren sindromearekin Azpeitian ere...

3 AZENTOA. Ederra da Jose Luis Otamendi bat errezitatzen entzutea, euskara batuan baina Azpeitiko azentoarekin. Harentzat, entonazioan, “gaRÉlako” “ga-reLÁko” da. “AzPEítiko”, “AzpeiTÍko”. Eta abar. Azpeitiarrontzat ere bai. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari ere Azpeitiko entonazioa, azentoa, ukitua emateko ordua ailegatu zaigu. Baina ez dakit azentoa denok jarri ahalko diogun. Elkarlanaren beharrik ez, beharbada, Udalarentzat. Eta talantea ona izango da, bai, baina talante onarekin bakarrik (eta eus-kalgintzarik gabe), asmatuko ote AzpeiTÍko azentoa jartzen? Nire erantzuna: ÉZ.



TALDE GEHIAGO. San Sebastianetan haur eta helduen danborradan bi talde berri izango dira aurtten. Beraz, danborradan parte-hartzea hazten ari da, talde berriei parte hartzeko aukera eskainiz.



PARKEA ZERRAZ MOZ-TUA. Goenakoa ez da izurratu den lehen haur parkea. Aurretik, 2002-an, Harzubia auzoan erre egin zuten bat, eta orain Goenan dagoen haur parkea zerraz dena puskatu dute.



SOKAMUTURRA. Orain San Sebastianetan ere sokamuturra bere kalean dela zenbatak itxiko du bere karrera, inguruan irekita duenera batere kontenplaziorik gabe sartzeko?

zer diyo?

URTE ZAHARREKO MAHATS ALEAK

2003ko Bake Nobel saridunak, Shirin Ebadi iraniarrak esana: "Patriarkatua mundu guztian dago"; baita Azpeitian ere. Baina hamabi mahats ale baditugu horri aurre egiteko:

- 1. Urtarrilak 19-20. Emakumearen parte-hartzea bultzatuz, emakumeak danborradara (Irun=Azpeitia=Hondarribia?).
- 2. Martxoak 8, Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna. Emakumeak kalera irten eta gure eskubideak aldarrikatu ditugu.
- 3. Euskal preso politikoen aldeko baraua. Euskal Herriko presoaren eskubideak etengabe urratzen direlako, salaketa guztion ardura da.
- 4. Korrika, euskararen aldeko apustua irabaztear dago; euskararen erabilera sexista saihestuz, euskara eta euskaldun guztiok garaile izango gara. Zorionak Maialen!
- 5. Maiatzak 1, Langileen Eguna. Soldata baxuekin lanean, kontraturik gabe, etxekolanen pisa, haurdun gelditzeagatik kaleratuak, *pobreziak emakume aurpegia du*,... Nork dio emakumearen egoera hobetuz doala?
- 6. Emakume Mahaia. Udaleko Gizarte Zerbitzuak bideratuta mahai bat biltzen hasi da, arlo ezberdinetako emakumeok parte hartuz... Noiz emakumearen zerbitzu berezitua Udalean?
- 7. Hauteskundeak. Emakumeak, bozkak lortzeko tresna moduan erabiliak. Ilusio faltsu asko eta legealdiz legealdi aldaketa gutxi. Gainera,

ilegalizazioaren bidez herritarren babes falta ikaragarria da.

- 8. Ekainak 28, sexualitate aske eta seguru baten alde. Aurreiritzirik gabeko informazioak as-katasunerako bidean jartzen gaitu! Denok jokora, garaipena gurea da!
- 9. Herriko jaiak, jai parekideen aldeko proposamena. Emakumeei espazioak eskaini, parte-hartzea bermatu eta emakumeen aurkako erasoaren aurrean salaketa eta erantzun bateratua bideratzea xede. Nork ez luke onartuko?
- 10. Azaroak 25, Azpeitian emakumeak tratatu txarrak jasateko arriskuan. 26 emakumek gizarte zerbitzuetan laguntza eskatu dute, eta lauk salatu dute. Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartzea denon ardura da!
- 11. Emakumeen topaketak, Eibarren: ikasi, ideiak elkartrukatu eta proposamenak sortu; xedea, gure borroka indartuz, gaur egungoa eta geroa eraikitzea!
- 12. Gabonetan jostailu ugari! Jostailurik onena, irudimena; utzi ume bakoitzari bere pertsonalitatea garatzen, balore mugatzailerik gabe; "bere burua marraz dezala, nahi bezala!".

Heldu tentuz mahats ale bakoitzari, hurrengo urterako gozagarri! Garaipena daukagu zain!



Emakumearen parte-hartzea bultzatuz, emakumeak danborradara"



Euskararen erabilera sexista saihestuz, euskara eta euskaldun 'guztiok' garaile izango gara"



Xedea, emakumeon borroka indartuz, gaur egungoa eta geroa eraikitzea da"

Izarraizpeko Sarginak

akulue



Leire Ostolaza

OLENTZERO
MAITEA

Badaramazkit bi urte hormigoizko lau horma gris hauei begira, eta gaiztoa izan ez naizen ziurtasuna, horma hauetan ez ezik, buruan ere biraka dabil. Betiko aurpegi ilunak ikusi behar ditut egunero, goxatu gabeko janaria jan behar urrutiko babarrunekin gogoratuz. Ehundaka kilometro ditut gurasoak eta lagunak. Eta nire etorkizunaz ez jakiteak gogaitzen nau aurrera begiratu nahi dudanean. Epaietarik egin ez didaten arren, sistemaren etsai jakinekoa naizela sumatzen dut, eta patrioko haize hotzak Erdi Kaleko korrante indartsuaren herrimina ekartzen dit.

Gauza hauek guztiak jasan nitzake agian, nire zigor honek ez balitu inguruko Gabonak baldintzatuko. Autoa hartu eta nirekin berrogei minutuz egoteko mila kilometro egin behar dituztenek ez dute zigorrik merezi, inola ere, eta Sara bezala errepidean bizitza uzten dutenek bihotza mila puska egiten didate. Horregatik, Olentzero, mesedez eskatzen dizut sakabanaketarekin amai dezazun, inongo amak ez baitu merezi oso noizean behin semea besarkatzeko aukera izateagatik kalbario hau pasa behar izatea.

Ikatzik ez zaidazula ekarri, arren, eta nori emanik ez bazenu, arazoez ohartu nahi ez dutenei bidali, zer pentsatua izan dezaten. Urte berri on.

galdeiez

Zein da zuretzat aldapa gogorragoa, urtarrilekoa edota irailekoa?



Jaione Arrizabalaga

(langilea)



“Niretzako, dudarik gabe, urtarrileko aldapa da gogorrrena. Gabonetan diru asko gastatzen da, bai

oparietan eta baita jatekoan ere. Gero, urtarrila iristen da eta luze jotzen du. Irailean ere diru asko gastatzen da, baina niretzako gogorragoa da urtarrilekoa”.

Idoia Leonet

(langilea)

“Bi aldapak gogorrak dira. Bi

kartak

Auzarazako etxebizitzetaz buruz

Auzarazako etxebizitzetaz inguruan bi sententzia egon direla jakinik, eta geuk ere bere garaian irregulartasun hauek salatu genituen, haxe adierazi nahi dugu:

- 2001eko martxoko 16an Uztarrarian eta 2001eko otsailaren 8ko *Diario Vasco*-n adierazi genuela Leku-Eder S.A. Exebizitzetaz Promozio Elkartearen Azpeitiko Auzarazako 1 eta 2 blokeen eraikuntza errekurrituta zegoela Bilboko Justizia Epaitegi Gorenean, Arau Subsidiarioek ziotena hautsi zirelako.

- 2001eko otsailaren 27ko *Diario Vasco*-n Jose Maria Bastida eta Azpeitiko udaleko EAJ-PNV eta EAKo zinegotziek adierazitela Auzarazako etxebizitzetaz proiektuak zehatz-mehatz betetzen zituela indarrean zeuden arau urbanistikoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Arau Subsidiarioek ere halaxe babesten zitzutela.

- 2003ko urtarrilaren 30ean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Bilboko Kontentzioso Administratiboko Aretoak Sententzia emana duela, Gipuzkoako Foru Aldundia-

ren erabaki baten aurka; erabaki horretan, Auzarazako etxebizitzak legalizatzeko helburuarekin egin ziren Arau Subsidiarioen ladaketak onartu zituen Foru Aldundiak. Beraz, epaitegiek indargabetu egin dute Udalak legalizatu nahi zuena

- 2003ko maiatzaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Bilboko Kontentzioso Administratiboko Aretoak sententzia emana duela Azpeitiko Udalaren eta Promociones Leku-Eder S.A. ren aurka. Sententzia honetan Aiu 14 Auzarazan egindako eraikuntzak, egindako urbanizazioa eta eraikuntza oinarritutako ekintza administratiboak ilegalak direla esaten du. Esaten du, baita, Azpeitiko Udalak legalitate urbanistikoa lehenezagotu, zuzendu behar duela.

- Bi sententzia horiek errekurrituta daudela Azpeitiko Udalaren eta Promociones Leku-Eder S.A. ren partetik. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela berari zegokiona errekurritu.

- Gure ustez, erantzunkizuna dutenak Promociones Leku-Eder S.A., Azpeitiko Udala eta, legalizazio saiakerari dagokionean, Foru Aldundia direla, eta bertako oraingo jabeak ekintza horien biktima direla, saltzaileak ondasunok auzipean egona ezkatatu zien heinean.

- Gure ustez, bertako jabeek Kode Zibilak ematen dizkien eskubideak erabili beharko lituzkete, borondate oneko erosle gisa, eta dagozkien neurriak hartu Promociones Leku-Eder S.A. ren aurrean, ondasun horiek horrela saldu zizkielako, eta Azpeitiko Udalaren aurrean, bere garaian, Jose Maria Bastida alkatearen eta laguntza eman zioten zinegotzien bidez, irregulartasun urbanistiko hauek gerta zitezen kolaboratu zutelako.

Joan Amenabar,
Jabier Iturralde
eta Jesus Larrañaga

Tramitazio Eguna dela eta

Jakina den bezala, pasa den abenduaren 13an EHNAren Tramitazio Eguna ospatu zen Euskal Herriko hainbat herritan. Azpeitian ere egun berezi hori ospatu zen, eta 109 herritarrek atera zuten EHNA. Azpeitiko Bai Euskal Herriari taldetik balorazio oso ona egiten dugu; gure ustez, jendeak ondo erantzun zuen eta oso garrantzizkotzat jotzen dugu jada 683 azpeitiarrek Euskal Herriko Naziotasun Aitormena atera izana.

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Ga- bonetako gogorik ba al duzu?

- Bai: % 32
- Ez: % 46
- Ez, gabonak triste jartzen nautelako: % 6,4
- Bai, egun horietan sendi osoa biltzen garelako: % 16

nera, Santo Tomasak eta San Sebastianak ere tokatzen dira Gabon inguruetan, bata bestearen atzetik. Festa asko batera tokatzen dira, eta bi hilabete hauetan juergatan diru asko gastatzen da”.

Maria Jesus Jauregi
(etxeko andrea)

“Nik iraileko aldapa gogor- rragoa dela esango nuke.



Gabonetan oparietan eta janarietan diru asko joaten da, baina nire iritziz askoz gehiago joaten da irailean. Umeak eskolara joaten direnean, gauza asko

behar izaten dituzte —eskola materialaz gain, arropak eta beste gauza batzuk—, eta hor diru asko gastatzen da”.

Inazio Agirre
(langilea)

“Niretzako urtarrileko alda- pa gogorragoa da irailekoa baino.



Gabonetan eta diru asko gastatzen da janarietan eta oparietan. Gero, urtarrileko aldapa iristen denean orduan izaten dira kontuak eta kome-riak”.

hilabete horietan normalean baino gehiago gastatzen da, eta bi aldapak ere nahiko antzekoak dira, gogorak biak. Irailean liburuekin eta eskolako materialarekin diru asko joaten da, eta abenduan berriz, gabonetako opariekin eta janariarekin ere beste horrenbeste joaten da”.

Iñigo Ugalde
(langilea)

“Niretzako urte bukaerakoa gogorragoa da.



Gabonetan eta diru asko gastatzen dugu erosten ditugun oparietan eta janarietan. Horrez gai-

hemerrotekie

Egia batzuek

Gari Berasaluze ('Berria', 2003-12-09)

Militantea eskiatzera doa ostiral iluntzean, arratsaldean presoan aldeko manifa izan ondoren. Hau da Euskal Herria: burges putaz beteta dagoen munduko herririk iraultzaileena.

Erosteke gure ahalmenetik bizi den lantegi erraldoia da gizartea, eta publizitatea erabiltzen du erosten ez badugu gu gaizki sentiarazteko, guk, liluraturik, erosteke aukera amaigabeari askatasuna deitzen diogun bitartean.

Bizitza osoan gogoratzeko moduko iraintzat har daitekeena egia bakarrik izan liteke. Egia batzuek lehegailuen indarra daukate, zure bizitza hankaz gora jar dezakete eztanda labur batekin.

Maitasuna urteak iraun ditzakeen treneko bi-

daia bat da. Txartelak ez du markatzen jaitsi beharreko geltokia. Maitatzen ikasteak ez du ezertarako balio ahanzten ere ikasten ez baduzu. Oraina egunero jaiotzen den promesa bat da. Nire bizitzako amodioa hil egin nuen, benetan nire bizitzako amodio baldin bazen berpiztuko den itxaropen etsitu baten agindura.

Galtzaile ona izan naiz beti. Beste erremedio-rik gabe poemak idaztera dedikatu naiz musuak eman ordez. Bere bizitza aldatu nahi duenarentzat idatzi nahi nuke liburu hau.

Durangoko Azokan eskuratu dugu Pako Aristiren *Libreta horiko poemak*, eta bizitza aldatu digu. Egundokoa da. Oso ona. Goiko lerroetako esaldi guztiak liburu horretatik ateratako hitzak dira. Pakok idatzi du zutabe hau, ez guk. Beraz, ezinbestean, lerro hauengatik kobratuko duguna liburu horren aleak erosi eta oparitzeko erabili dugu, adiskideen bizitzak ere aldatzeko esperantzan.

harra azpimarratu nahi dugu le-
rro hauen bidez. Herriko denda-
tan, anbulategian, liburutegian... eta nola ez, udaletxean, EHNA erabili behar dugu, ez baita poltsikoan eramateko karnet sinboliko bat.

Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren bidez, edozein herritarrek, nonnahi eta noiznahi, bere euskal naziotasuna adieraz dezake, libreki, inork ezer inposatu gabe. Eta, berriz diogu, hor dago benetako gakoa.

Espainiako eta Frantziako estatuek inposatutako karnetak ezartzen dizkigute; baina eus-

kaldun sentitzen garenok arrotz sentitzen gara karnet horiekin. EHNAren bidez, gure euskal naziotasuna aldarrikatzen dugu.

Gogoratu behar da Bai Euskal Herriari herri ekimenak sinadura bilketa handi bat egin zuela Euskal Herri osoan, (125.000 sinadura bildu ziren), non Udalbiltzari (euskal erakunde nazional bakarrari) eskaera garbia helarazten zitzaion: EHNAren tramitazioa ahalbidetzeko, hain justu. Udalbiltzak hori onartu egin zuen; hurrengo pausoa, hori herriz herri onartzea izan

zen. Hainbat herritako udalek onartu zuten eskaera hau, tartean Azpeitia (2002ko maiatzean egindako ez ohiko batzarrean). Ondorioz, urte eta erdi honetan 683 herritarrek atera dugu EHNA, baina gehiago izango dira laster.

Bukatzeko, EHNA atera duten herritarroiek eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, Abenduaren 13a bezalako egunak errepikatuko diren esperantzan gaude.

Azpeitiko
Bai Euskal Herriari

hausnartzen

GAIA: 'Euskararen normalizazioa Azpeitian'. Euskaraz bizi al gara herrian? Udalak bakarrik gidatu behar al du plangintza? Zer paper jokatu behar du euskalgintzak?...

Oharra: hurrengo zenbakietan ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrarian; idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera


AKORDIO ZABAL BATEKIN, EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN LAN ASKO DAGO EGITEKO

Azpeitian euskaraz bizi garela egia da baina oraindik asko dago egiteko. Azpeitian eta lan munduan ahozko komunikazioan —langilegoaren gehiengoa euskalduna delako— euskara erabiltzen da, baina oraindik idatzizko komunikazioa, lan bilerak eta abar erabat, ehuneko altu batean, erdaraz egiten dira. Baina kalean ere antzekoa gertatzen da, bakarren bat baldin badago erdaraz errazago moldatzen dena, oraindik ere koadrila osoak bategati edo birengati erdaraz hitz egiten dutenak ere badaude.

NORMALIZAZIO PLANAK ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ENPRESATAN.

Lan arloa da gure esparru naturala, eta orain gutxi Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu eta 2004rako Kudeaketa Planaren barruan jorratuko den arloetako bat lan mundua hartu da. Kudeaketa Planean lan mundua euskalduntzeko, Aholkularitzako Teknikoa eskaintzeko bulego bat sortuko dela jasotzen da. Pauso horiek denak gure aldekoak eta aberasgarriak direla uste dugu. Baina lan munduan benetan euskara normalizatzea nahi baldin badugu, gure ustez behintzat, beste salto bat ere eman beharra dago. Bigarren salto hori enpresatako negoziazio kolektiboan izango litzateke, soldata, lan ordu murrizketa, eta beste hobekuntzak izaten diren bezala gure lehentasun, enpresetan euskararen normalizazioa ere planteatu beharko litzateke. Guk ere hasi beharko dugu gure jendea sentibilizatzen eta gu geuk ere barneratzen hori egin behar dugu. Euskararen normalizazio planak bultzatu behar ditugu lantokietan, azkenean bulego tekniko honek ez baititu enpresa bakoitzeko plan zehatzak egingo, lantegi bakoitza mundu bat da eta bakoitzean zehaztu beharko dugu nolako plana nahi dugun. Bulego teknikoak, diru laguntzak bideratu, zenbait aholku eman eta laguntza tekniko eskainiko du, hortik aurrerakoa denon lana izango da. Enpresa munduak ere konturatu behar du, euskara normalizatu batean lan egiteak, balio erantsi bat duela eta ez dela diru eta denbora galtzea. Benetan eraginkorrak izan nahi badugu eta lan munduan euskara normalizatzeke salto bat ematea nahi badugu, ez dugu zalantzarik guk bide bat jorratu behar dugula, negoziazio kolektiboak ematen digun bidea.

Aholku Batzordean ere parte hartu izan dugu, baina hori ez da nahikoa, lana egin behar da azkenean; lan egin behar da enpresaz enpresa. Gure egitekoa komiteetan delegatuekin hitz egin, sentibilizatu eta enpresa bakoitzean gai hau landu dezatela izango da. Aholku Batzordean eta bestelako organoetan egoteak bere inportantzia badauka, baina hori baino garrantzitsuagoa ikusten dugu, normalizazioko planak egiteko garaian, diseinua egiterakoan, lana egiteko eran, jarraipenean... parte-hartze zabala izatea. Azken batean, dena eginda ematen baldin badigute, era horretara hor egotea, ez da guretzat lehentasuna.



AKORDIO ZABALA. EBPnko organoetan herriko euskalgintza derrigorrez egon beharreko eragile bat da. Guk uste dugu euskalgintzak eta eragile guztiok ezinbestean egon behar dugula EBPnren barruan. Gehiago esanda, betidanik ari gara eskatzen benetako normalizazio baterako akordio zabalak behar direla, ez daitezela izan alde bakarreko akordioak.


PLANA IREKIA. Euskararen kontra dauden erasoekin, gizarte eragile desberdinetatik gero eta nabarmenagoa da, eta eskaera handiagoa da, euskarak akordio zabal bat behar duela eta guk uste dugu hori herri mailan islatu behar dela. Planak irekia izan behar du, aurrera begira izan daitezkeen beste ekimenetarako eta planteatu daitezkeen ekintzetarako, eta horretan Uztarriak proposatzen duenarekin gu ados gaude. Elkarlana behar-beharrez-

“ Benetan eraginkorrak izateko eta lan munduan euskara normalizatzeko salto bat emateko negoziazio kolektiboko bidea jorratu behar da”

Azpeitiko ELA

“ Enpresari konpromiso batzuk eskatzen ari gara plangintza zehatz batzuk egiteko; horrek suposatzen duenarekin, inbertsioekin eta abar”

Azpeitiko LAB



koa dela azpimarratuko genuke. Jarrera positiboa hartu behar du Udalak, uztartzea bideratuz eta euskalgintzarekin kontaktuz; saiakera orain egin behar da. Udalarari exijitu behar diogu uztartzeko bidea eman dezan. Azpeitian euskararekin sentsibilizatuta dagoen jendeak berriz ere herri mailan bikoiztasun hori sortzeko kezka baitauka. Esperientziak badaude adibide direnak; Tolosaldekoa hor dago. Ez da ezinezko kontu bat. Eta uztarketa ez baldin bada, Udalak ondo azaldu beharko du zergatik ez dagoen. Borondate kontua da azken batean, egin daiteke eta posible da. Uztarriaren eskaerak logikoak dira eta Azpeitiko herritar askoren babes zabala dutenak.

Azpeitiko ELA

LAN MUNDUAN ORAINDIK ERDARAK INDARRA DU

Orokorrean hitz egin eta komunikatzeko orduan, euskaraz bizi gara Azpeitian. Baina esparru batzuetan, adibidez lan munduan, ahozko komunikazioa euskaraz ematen da, baina erdara ere asko sartzen da, batik bat agirietan, idatzietan, dokumentuetan eta abar. Dena dela, orain geu ere aha-legintzen ari gara dokumentu guztiak elebitan edota euskara hutsean sartzen. Baina oraindik erdara asko sartuta dago.

LABek Plan Estrategiko bat du euskararen normalkuntzarako, EusLAB deitzen da. AEKrekin eginga du akordio bat Plan Estrategikoa aurrera eramateko. Helburua da sindikatua bera —sindikatu barneko komunikazioa eta organoak— euskalduntzearekin batera, lan mundua euskalduntzea, euskara normalkuntzarako plan estrategikoak ematea enpresa mailan. Azken batean, enpresa munduan ere *Bai Euskarari Ziurtagiria* lortzeko bidean pausoak ematen joatea da asmoa.

Lan mundua euskalduntzeko enpresa zehatz batzuekin lanean hasi beharko da, horiek beste enpresa batzuentzat adibide izan daitezten. Gu, enpresa hitzarmenetan, soldataren puntua edo lan orduen murrizketa bezala, tartean euskararen normalkuntzaren puntua ere sartzen saiatzen gara. Enpresari konpromiso batzuk eskatzen ari gara, plangintza konkretu batzuk egiteko, horrek eskatzen duenarekin, inbertsioekin eta abar. Dagoeneko saiakerak egiten ari gara enpresa batzuetan. Gero ez dakigu nola garatuko den, oraindik eskualdean ez baitago esperientzia borobil bat, beste eskualdeetan egon daitekeen bezala —Tolosaldean edo Goierri—. Urola-Kostan Aizarnazabalgo enpresa batek baiezkua eman du euskararen normalkuntza plana aurrera eramateko, eta hitzarmenean ere puntu hori sinatuta dauka.

EBPN-N DENAK. Orain Azpeitian EBPN martxan jartzea erabaki da, baina eragile guztiek egon behar dute hor, baita alderdi politiko guztiek ere, Habeak barne. Esate baterako, lan munduan euskara normalizatzeko plana abian jarri nahi bada, ezinbestekoa da sindikatuok ere hor egotea. Eta, nola ez, euskalgintzak ere hor egon behar du. Izan ere, euskalgintzak Udaletik kanpo bere pauso batzuk emanda ditu: Baite zenak egindako ekimenak edota Uztarriak euskara arloan eman dituen pausoak dira horren adibide.

Azpeitiko LAB

udal erabakiek

2004-2007 Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du

Aho batez onartu zen abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, ez ohiko udalbatzarrean 2004-2007 Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN), 2004rako Kudeaketa Plana eta Udal barneko jardueran EBPN martxan jartzea. Udal arduradunen esanetan, Azpeitian garatuko den EBPNren helburu nagusia “euskara Azpeitiko gizarteko esparru guztietara zabaltzea da”. Horretarako hiru lan esparru ezartzen ditu EBPNk: lehenengo,

lan esparruan Azpeitian euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa (guraso eta seme-alaben artekoak) sendotzea eta finkatzea da, etenik izan ez dezan. Bigarrena, euskararen erabateko erabilera Azpeitiko gizarteko esparru guztietara zabaltzea. Eta hirugarren lan arloa, euskara bera, “komunikazio-tresna den aldetik”, Azpeitiko gizarte arlo guztien komunikazio behar guzti-guztiak betetzeko lantzea eta aberastea. Hala bada, hiru lan esparruetarako helburu estrategikoak lortzeko, gizarte-arlo guztietan garatu beharreko neurriak eta ekintzak zehazten ditu EBPNk.

Lasterka egiteko biltzen hasi dira herriko korrikalari afizionatuak

Ion Aranburu / Azpeitian lasterka egiteko afizio handia dago. Afizio hori dela eta, korrikalari afizionatu talde bat biltzen hasi da uda partetik hona. Hala kontatu diote Uztarriari Mikel Itulainek eta Jose Inazio Azpiatzuk, sortzen ari den talde horretako bi kidek. “Jende dezente ibiltzen gara lasterka afizioz, eta hortik talde bat sortu nahi dugu”. Gaur egun 40 pertsona inguruko taldea osatu dute Azpeitiko eta Azkoitiko korrikalariek.

IRAURGI IZENAREKIN. Iraurgi Atletismo Taldeak bilera horien berri izan zuenean, taldean sartzeko proposamena egin zien lasterkalari afizionatuei. Eta oraingoz, neurri batean, onartu

Herriko lasterkalari batzuk Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian.



egin dute afizionatuek. Ez dute nahi, ordea, inolako obligaziorik. “Guri lasterka egitea gustatzen zaigu, baina ez dugu nahi karrera zehatz batzuetan parte hartzera derrigortuta egoterik”, diote.

Parte hartzen duten lasterketetan Iraurgiren elastikoak erabiliko dituzte: “Merkeago ateratzen zaigu horrela eta Iraurgiren izena ezagutaraziko dugu”. Inguruko lasterketetan parte hartzeko ohitura dute lehendik ere, baina lehen, askotan, bakarrik joaten ziren eta orain, afizionatuen taldea sortu ondoren, lasterketetara taldean joago dira.

Guar egun taldeko korrikalari afizionatuek helburu bakarra dute: taldea bera sortzea eta ahalik eta gehien zabaltzea. Beraz, Iraurgi Atletismo Taldeak afizionatuen talde zabal bat izango du. ●

Egoitz Lasa gurien...

aktorea

“Umeentzako ala helduentzako lan egitea erabat desberdina da”

Ion Aranburu / Egoitz Lasa aktorea da. Oraingoan *Antonio Apreta* ipuina kontatzera etorri da. Ipuinak kontatzen hiru urte daramatzan arren, azken boladan eza-gunagoa egin da *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanean egiten duen lanagatik. Liburutegiko ipuin kontaketaaren aurretik egun zen Uztarriarekin.

Atxubiaga inguruko zubi berriko eta biribilguneko lanak aurrera doaz

Landetako Antzibarrena industria poligonoa eta Urrestillako errepidea elkartuko dituen zubia jarri dute. Hor, gainera, biribilgune berri bat ere egin da. Laster amaituko dituzte zubiko lanak. Horrela, Landetako poligonora zuzenean sar daitezke Urrestillatik eta Landetatik datozen ibilgailuak. Orain arte, Landetatik Urraki aldera doan errepidetik bakarrik sar zitekeen industrialdera. Zubia industrialdeko enpresek ordainduko dute.



Ibai Eder gainera zubi berria.

2.060 euro 'Berria'-ri

Azpeitiko Udalak *Berria* euskarazko egunkariari 2.060 euroko laguntza emango dio, 2004ko aurrekontuetatik. *Berria*-ko herriko batzordeak gainditua du helburua (59.000koa zen).

zer dago gaizki, zer soberan, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Urtarrilak 20 (asteartea)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1. ezkerra; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Lidia jantzi dendako erosketa txartela.

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA



IRABAZLEA: Leire Otaegi



Leire Otaegi izan da 46. garailea. Zumaiko Zelai Talasoterapiari bi lagunentzako zirkuitua irabazi du. Argazkian, Leire bera –eskuinean– eta Zumaiko Zelai Talasoterapiako bat.

● Ez da lehen aldia Azpeitira etortzen zarena. Zer nolako harrera espero duzu?

Ipuin kontaketa formatoarekin hiru urte-tan etorri gara Azpeitira, eta etorri garen bakoitzean oso harrera ona jaso izan dugu. Eta gaur ere horrela izango dela espero dugu. Azpeitiko umeak parte-hartzaileak izaten dira normalean.

● Ipuin honekin duela gutxi hasi zarete. Zenbagarren emanaldia duzue?

Seigarrena dugu. Honekin udaberri aldera arte ibiliko gara, eta gero uda partean kale antzerkia egiten hasiko gara. Ipuinak antzeztzen hiru bat urte daramazkigu, eta hau dugu guk egiten dugun hirugarrena. Aurretik ere egin ditugu beste batzuk.

● Helduak ala umeak, zein nahiago?

Segun eta zertarako. Helduek gauza batzuk aportatzen dituzte, eta umeek, berriz, beste batzuk. Zeharo desberdina da. Umeek abantaila bat dute: atsegin ez badute berehala esaten dute, eta, ondorioz, hurrengo emanaldirako hobetzen saiatzen zara. ●

abenduko hiru irudiyek



ION ARANBURU

BIGARRENA! 2002ko urrian Harzubia auzo guneko haur parkea erre zuten. Joan den hilabetea, berriz, Goenako haur parkeko jolas guztiak zerraz moztuta azaldu ziren.



ION ARANBURU

KONTZENTRAZIOA. Abenduaren 8an EAJ, EA eta PSE-EEK deituta kontzentrazioa egin zen, abenduaren 5ean Manoli Uranga PSE-EEko zinegotziaren etxeak izandako eraso salatzeke.

'Gaua biluzten' Segabathorren lehen diskoak Durangon ikusi zuen argia

Nerea Uranga / Segabathor musika taldeak Durangoko Azokan bere lehen diskoa kaleratu zuen. *Gaua biluzten* du izenburua diskoak, eta Baionako Agorila disketxearekin kaleratu dute. Diskoa III. Gazte Leiho lehiaketan lehen saria lortzearen emaitza

da. "Taldearen progresio horretan beste pauso bat da lehen diskoa ateratzea. Grabaketa estudio handi batean egin dugu, Lorenzo Recordsen, eta horrek musika mundu honetan sartzeko aukera ematen du", diote Segabathor taldekoek.



Segabathor musika taldekoak. / SEGABATHOR

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net


**Bainuak
eta
bainu osagarriak**
ESKAINTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta
berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak



ITURRALDE Iturgintza, S.L.

ORDULARI



JOSE ARTETXE, 10
Tel. 943 81 52 44

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Otamendi
Beltzi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



PEUGEOT

AIZPURU
AUTOAK

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



BARRU GIROA SANTO TOMASETAN. Goizetik eguraldi txarra egin zuen Santo Tomas egunean, eta barru giroa nagusitu zen. Aterpean tokatu ziren, postuak, zorteko. Hala ere, eguraldiak ez zion irabazi jai giroari. Taloa eta txistorra izan ziren jateko nagusi.

Taldea Azpeitiko da, Zubi Zar etxean entsaiatzen dute. Taldekideak bost dira, lau azpeitiarrak eta bat azkoitiarra: Joseba Eizagirre, Aritz Unanue, Pello Arribas, Asier Larrañaga (azkoitiarra) eta Jon Zubizarreta —argazkian hurrenez hurren—. Gazte Leihoko saria Baionan jaso zuten, eta disketxea bera ere hangoa da. Diskoa, iazko udan, Berrizen grabatu zuten eta Durangon kaleratu zen.

Segabathorren disko berria dagoeneko salgai dago disko dendatan. Eta orain, diskoa ka-lean, zuzeneko emanaldietarako entsaiatzen hasita daude.

diskoa



• LEHENA.

Gaua biluzten, Segabathor taldeak disketxe batekin ateratzen duen lehendabiziko diskoa da.

• **KANTAK.** Guztira, bederatzi kanta bildu dituzte disko berrian.

• **HITZAK.** Kantu bateko hitzak Joseba Sarrionandia idazlearenak dira, eta beste batekoak Igor Aranbarri azpeitiarrarenak.

Hurrengo pausoa kontzertuak lotu eta zuzenean jotzea izango da. "Ederra da zuzenean jotzea, zuzeneko oso desberdina da", diote taldekideek.

Dagoeneko Gazte Leiho lehiaketan bi sari jaso ditu talde azpeitiarrak, lehiaketaren lehen edizioan hirugarren saria jaso zuten rock-heavy atalean, eta azken edizioan eta atal berdinean lehen saria eskuratu zuten. Musika talde azpeitiarrek sari onak lortu izan dituzte maketa lehiaketa honetan; izan ere, Lehen Beltza taldea bigarren edizioan bigarren gelditu zen rock-heavy atalean. •

“Saillapenean behean gaude, baina nik uste badaukagula nahikoa ekipa hortik ateratzeko”

Mikel Aranburu

(Realeko futbolaria)

“Hilabete batean behintzat ezin izango dut pilotan jokatu, puskatutako hatza sendatu arte”

Iban Otaegi

(pilotaria)



“Joxe Takolo beka jasotzeak mendian jarraitzeko ilusioa eta bultzada eman dit”

Xabier Ormazabal

(mendizale urretzuarra)

Aliur

OKINDEGIA KAFETEGIA

Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazko altzariak lantzen ditugu

MATXIN XESTOAK
eskulangintza

✓ Pablo VI, 8 - 943 810 116 (denda)
✓ Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)

EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfona/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA

AERI
A.E.P.I. 20/46

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira


81 53 35

'Imanol Lazkano. Aho bizarrik gabe' liburua

Imanol Lazkano

Imanol Lazkano, Azpeitiko Landetako Antzibarrena baserrian (1936) jaio zen. 14 urterekin egin zuen bertsoan jende aurreko lehen saioa. 1987tik Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria da.

“Bertsolaritzara zerk erakarri nauen eta bertsolari moduan zer ingurutan ibili naizen kontatu dut batik bat”



• **LIBURUA:** 'Imanol Lazkano' • **IZENBURUA:** 'Aho bizarrik gabe' • **EGILEA:** Imanol Lazkano, Joxerra Garzia eta Andoni Egafia • **AZALA:** Ainara Lazkano • **ARGITALPENA:** Bertsolari Liburuak • **GENEROA:** Autobiografia eta bertsoak • **SALNEURRIA:** 20 euro • **SALTOKIAK:** Liburudendak.

Imanol Lazkano Landetakoa da, bertsolaria eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria. Hona Bertsolari Liburuak-ek Durangoko Azokan ateratako liburuaren bi zati

Zoriari zor

Suerte izugarikoa izan naiz nire bizitzan. Gerra urtea izan arren, familia bedeinkatu batean jaio nintzen. Behartsua, hori bai, baina zorionekoa oso. Hamar senide, aita eta ama, amona eta aitona, markesaren maizter. Gure etxean lana eta errezoa ziren oinarri, baina elkartasuna eta umorea ezaugarri. Oraindik ere senide artean ezin giro hobea izaten dugu.

Auzoa ere zoragarria izan nuen. Nekazari mundua, euskaldun peto-pettoa, salbuespen bat edo beste bazen, baina euskaltzale-euskaltzaleak ziren gehienak. Auzolanetan eta abarretan adarjotze sano eta umoretsua ezagutu izan dut nik beti.

Sei urtetik zazpira hasi nintzen Azpeitira eskolara, maristetan. Agian gaztelera eta diziplina pittin bat zuten sobera, baina oso irakasle onak ziren gainerakoan.

Kaletarrak, berriz, baserritarrak bezain euskaldun ziren Azpeitian. Komentuetako mojarik gehienak, Loiolako jesuita batzuk, eta kuartelean zeuden sei guardia zibilek ez beste denok genekien euskaraz. Seguru asko, giro hori ikusita galdetuko zion bihurtzeko batek Azpeitiko dendari bati:

— En este pueblo habrá mucha agricultura, ¿no?

Eta dendariak, gaztelaniaz ziharduelakoan,

— No, no. También hay burnikultura!—
Ordurako mekaniko tailer gutxi batzuk hasiak baitzeuden tornu eta horrelako makinak egiten.

Bertsolaritza ere, oso haur nintzela ezagutzeko aukera izan nuen, lehenbizi Santa Ageda eskean, eta geroxeago udaletxeko balkoi handi hartan. Basarri, Uztapide, Txapel, Zepai, Loidisaletxe eta abar, niretzat mundu honetako pertsonaia handienak ziren, hainbeste miresten nituen. Haietako bakoitzaren aurpegian ere aurkitzen nuen halako zer berezi bat, beste pertsona arruntek ez zutena. Propio bertsotarako egindako pieza bakarrak ziren niretzat. Nola sinestuko nuen gero beraiekin plazaz plaza ibiltzera eta beren lagun izateraino iritsiko nintzela?

Ondorengoekin berdin, neroni baino zaharxagoekin hasi, neure adinekoekin segi, eta, be-

launaldiz belaunaldi, gaur egun eskolarteko txapelketan parte hartzen duten gazteetaraino, harreman ezin hobean igaro ditut orain arteko urteak. Neronek hainbeste maite izan dudana bertsolaritzaren putzu handi eta gozo horretan nahi adina igeri egiteko aukera izan dut, neuretzat zorionez.

Lantokietan ere beti lagunarte giro ezin hobea aurkitu izan dut. Garai batean, erlojuari asko begiratu gabe, argitik argira lan egiten bagenuen ere, eta gorputzari zigortu latzak eman, lagun arteko giro ona eta umorea galtzeko arriskura iritsi gabe ibili izan naiz beti lanean.

Horrela esanda, badirudi nire bizitza lore arteko paseo bat izan dela, baina hori ez da egia. Nire bizitza ere, beste askorena bezalaxe, arantzatsua eta gogorra izan da. Baina nekea ez da hainbeste neke, eta arantza ez da hain arantza, inguru eroso batek babesten zaituenean. Beraz, berriro diot, oso suerte oneko sentitu naiz beti izan dudana inguruarekin.(...)

Hitzaren artistak

Mundu honetan norbait izan eta zerbait egin nahi duen orok, begiak erne ibili beharra dauka. Bertsolari izan nahi duena behartuta dago, nahitaez, belarri-zabala izatera. Horrek ez du esan nahi belarri-zabal guztiak bertsolari izango direnik, baina bai bertsolari diren denek belarriak oso zabalik ibili izan dituztela dabiltzan leku guztietan, non esaldi dotore bat entzungo, noiz gertakizun bitxi bat jasoko. Bertsoa, nolabait esateko, euskararekin jolas egitea denez, herri bakoitzean izan ohi diren hiztun iaio horiei izugarrizko miresmena diegu. Horiexek dira gure maisuak.

Horretarako eskola ezin hobea izan da Azpeitia, bertan pertsonaia berezi asko izan delako hizketarako trebeziaduna. Keixeta aizkolaria aipatu dut lehenago, eta esan dut bere garaian onena zela aizkorian. Hizketan ez zen kamutsagoa. Behin, auzoko batek, han-hemenakako bere ibilari esker informatuago zegoelakotan, galdera egin zion:

— Aizu, Keixeta, obra bat egin nahi nuke, eta



SENDIA. "Sendi osoa, anaia lñakik habitoa hartu zuenean, Antzuolan".



KEIXETA. "Keixeta handia. Atzeko neskakilen arteko bat Arantxa da, gero emazte izango nuena".

zuk ba al dakizu zer egin behar den aurrezki kutxatik dirua ateratzeko?

Keixetak, beste behin ere, zuzen eman zuen epaia:

— Aurrena, sartu!

Beste behin, Azkoitian aizkora apustu bat bukatu ondoren, hartu du gure Keixeta hori erre-zildar batek bere kamioian, Azpeitiraino ekarriko zuela esanda. Garai batean arrain garraioan ibiltzen zen kamioi horietako bat zen, hain zu-zen, eta Loiola aldean behera ziztu bizian joan-go zen seguruena, eta Keixeta larri. Nonbait honela esan omen zion behintzat gidariari:

— Uste det belaxe ailegatuko garela, baina nahiago nuke ailegatuta banego.

Mutilak aizkorako prestatzen ere fama handi-koa zen. Behin bere mutilak apustua irabazi eta afaltzen ari zirela, galtzailearen aldeko gizatxar horietako bat etorri zaie berak zeuden mahaira, eskandalu bila noski. Eta esaten dio Keixetari:

— Zuk esan omen dezu, ni ez naizela gizo-na.

Keixetak orduan, bere hizketa apal eta gozoa-rekin:

— Antonio, neri ez didazu arrazoirik eman zu gizona ez zarela esateko, eta ez det inun esan zu gizona ez zarenik.

Antonio horrek, orduan eta harroago, jainkoa eta santu mordo bat komunetik pasatu, eta mahaiari ukabilkada bat emanez:

— Zuk esan omen dezu ni ez naizela gizo-na!

Eta horrela hiru edo lau aldiz, Keixeta beldur-tuko zuelakoan. Keixetak, ordea, adinean aurre-ratu xamarra bazegoen ere asko izutu gabe, jeiki, bi besaburuetatik heldu, eta astindu txiki bat eman dio, esanez:

— Oraindik ez det esan, baina uste det bere-halaxe esanaraziko didazula.

Han bukatu omen ziren eskandalu arriskuak. (...) •

Biele

K
HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGOIAK

domusā

P
PEMEC

ALKATE BATEN DESPEDIDA



Urtea amaitu zaigu. Berria datorkigu. Errepasoa egiten hasita, joandako urteak Azpeitian eskaini duen gertaera nabarmen baten bila hasi naiz. Eta bada gauza bat oharkabe samarrean joan dena baina niri garrantzitsua iruditzen zaidana. Aurtengo udaberrian agur esan zion alkatetzari Jose Mari Bastidak, eta oso despedida arraroa izan da kargu horretan 18 urte pasa dituen gizon batentzat, bai maite zutenen aldetik, baita maite ez zutenen (eta gorrotatzen zuten askoren) aldetik ere.

Oso despedida tristea izan da. Bastidak berak enkargatu eta Udaleko diruarekin garesti ordaindutako liburukote bat atera zuen, denoi etxeko ateraino ekarri zigutena, bere lanaren goraipamenerako: paper garestia zeukan, argazki asko, esplikazio eskasak, dena eder eta polit agertzeko intentzioa, bere lana arrakastatsua izan balitz bezala. Bere zeregina Azpeitiaren historian funtsezkotzat agertu nahi zuena. Baina denok dakigu norberak bere burua famatzea gauza tristea dela, ezintasuna agertzen duen ekimen ustela. Zure lana publikoa baldin bada, publikoak famatuko du, edo bazterreratu. Hori idazleok ondotox dakigu, eta ezagutzen dugu publikoaren bendizioa zein bazterketa. Norberak ezin du esan zenbat egin duen herriarengatik, hori besteek esan behar dute, historiak esan behar du alkate bat ona izan al zen edo halamoduzko txapuzero eskas bat, edo mafioso bat, edo nahi duzuen.

Hilabeteak itxoin ditut, eta ez dut inon ezer idatzia ikusi, ez dut entzun komunikabideetan Bastidaren lanari buruzko ezer. Ez da agertu prentsan gutunik. Udalaren inguruko publikazioetan zurikerian aritzen direnek (borondate onez izanda ere) ez dute ezertxo idatzi. Bazkariren bat edo kenduta ez du omenaldi nabarmenik jaso. Nik uste nuen herria 18 urtetan gobernatu duen gizonaren despedidak piztuko zituela esker oneko idatziak, edo kritikoak izan direnek aprobeztatuko zutela despedida egia batzuek esateko, baina ezer ez du esan inortxok.

Uste nuen Bastida bazela norbait, Azpeitian ez ezik baita Euskal Herrian ere. Iazko inauterietan gazte batzuk salatuz protagonizatu zuen iskanbila zela eta ia Espainiako hedabide guztietan ikusi genuen, baina orain inork ez du idazten hari buruz, haren lana epaituz, famatuz, kritikatzuz, zertan asmatu zuen, zertan huts egin. Badirudi denak hura desagertzeko amorratzen zeudela, eta orain pisu bat kendu duenaren laisaitasunak hartuta dabiltzala.

Egia da, batetik, Bastidak hiru abokatu zeuzkala bere alde lan egiteko, ondo babestu zuela beti bere bu-

HILEKO GALDERA.

Euskara
Biziberritzeko
Plana, hori zer
da, 'lo mismo
que el plan
Ibarretxe?'

rua. Egia da, bestetik, bere alderdi politikoa nahiko aspertuta zegoela berarekin, duela lau urteko hauteskundeetan apoiatzen ez bazuen bere kasa aurkeztuko zela mehatxu egin omen zionetik. Azken honek zer esan nahi du? Ba EAJak ez zuela bere ustez herriarentzat alkaterik onena aurkeztu, baizik eta gogoko ez zuen pertsona bat onartu zuela boterea ez galtzeagatik.

18 urte asko dira. 18 urte herri bat gobernatzen eman dituenak gehiago merezi du, goraipamen gehiago, edo egur gehiago. Gainera, Bastidak agintzeko modu oso pertsonalizatua izan du beti, bera zen azken erabakiaren jabe, bera bakarrik, berak agintzen zuen, ez beste inork, besteak harekin ondo konpondu beharreko kolaboratzaileak baino ez ziren, haren aginduak betetzeko zeudenak. Ertzainei deitu zalea zen oso, gazteak jipoitzeko; etxegileen lagun handia, etxeen prezioan Azpeitia Gipuzkoako bigarren herriak garestiena bihurtu duten horiena. Herrian zulo handi bat zabaldu du 18 urtetan, herritar askori bizkarrara emanda gobernatuz. Hori ixten lan ederra utzi die ondorengoei.



Uztarria bazkidetza

Uztarriaren bazkidetza kanpaina emaitza onak ari da ematen

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur
Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea
4, 1.a ezkerre (Azpeitia).
Telefona eta faxa: 943 -
15 03 58
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com
Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 2.000 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen
laguntzaileak



**AZPEITIKO
UDALA**



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



**EUSKO
JAURLARITZA
Kultura Saila**

Uztarria Kultur Koordinadorak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizuna



Uztarriak abenduan bazkidetza
kanpainari ekin zion, elkarte
gehiago sendotze aldera. Zer lot-
zen da bazkide eginda?

- **Azpeitiko efemerideak.** *Herria
historian zehar* liburua erdi pre-
zioan erosi ahal izango da (6 euro-
tan). Egilea, Imanol Elias.

- Mendi gida ere bai (urte hasie-
ran argitaratuko du Uztarriak, La-
gun Onak Mendi Bazkunarekin
batera).

- **Imanol Elias** eta **Patxi Altuna**
biografiak doan jasoko ditu bazki-
deak.

- **Literatuzta** gehigarria ere bai.

- Herri aldizkaria, www.uztarria.com eta euskara aldizkaria
sendotzen laguntzen da.

Uztarriak 728 bazkide ditu
(690rekin hasi zuen kanpaina)
eta 1.200 harpidedun. Bazkideek
urtean 24 euroko kuota ordain-
tzen dute; harpidedunek batere
ez (aukera hori dute; Uztarriari
harpidedun bakoitza urtean 13,2
euro kostatzen zaio). 2004an
112.000 euroko aurrekontua du.

Bazkide egiteko, deitu 943
15 03 58 telefonora.

albiste txikiyek

'Azpeitiko efemerideak' liburua salgai

Abenduaren 6an aurkez-
tu zuen Uztarriak *Azpeiti-
ko efemerideak* liburua,
Imanol Eliasek eginda.
Salgai dago Ekliptse, Ira-
tzar, Martinez eta Belae-
txe dendetan eta Uza-
rriaren egoitzan. 12 euro
balio ditu, baina Uza-
rriako bazkideek 6 euro-
tan dute (txartelarekin).



Uztarria-Baite, bat eginda dagoeneko

Abenduan esan bezala,
Uztarriak eta Baitek bat
egitea erabaki zuten aza-
roaren 29ko bazkideen
batzarretan. Urte berritik
daude bat eginda. Baite-
ren lan taldea eta eki-
menak Uztarriara pasatu
dira.

728 bazkide gara dagoeneko; mertzi denel

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 24 euro (aldizkaria, liburuak, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefona eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Azpeitiarren festa handia badator:
San Sebastianak. Herritik kanpo bizi diren
azpeitiar asko etortzen dira, batik bat
danborradan jotzeko gogoz

DANBOR HOTSEAN HERRIRA

Ahizte Oruesagasti - Ion Aranburu

Azpeitiarrentzat oso egun berezia da San Sebastian eguna. Kanpotik jende asko etortzen da herrira danborrada ikustera; Azpeitian bizi ez diren herritarrak dira batez ere etortzen direnak. Eta horietako batzuk, gainera, danborradan parte hartzera, nahiz eta hurrengo egunean lanera joan beharra izan. Uztarriak haietako batzuekin hitz egin du, eta festa "eder" eta "handi" bezala dituzte San Sebastianak; horregatik etortzen dira urtero danborradan irteterra.


Danborradan aurtan berrikuntzak daude. Helduenean talde bat gehiago aterako da: Oilo-Soro elkarteak. Hauek lehenengo aldiz irtengo dute danborra jotzen. Trajea, Erriberako artzainen janzkeran oinarritu dute. San Sebastian egunez gaez ere irtengo du Oilo-Sorok; harekin batera, aurtan, Txalintxok, Irrintzik eta Arauntzak.

Umeen danborradan ere tade berria izango da aurtan; Juan Antxieta Musika Eskola. Garai bateko tronpetajoleek eta egungo musika bandek dituzten elementuak nahasita osatutakoa da haien jantzia.




pieza berria

- Aurtan pieza berria estreinatuko da danborradan; helduenean, bezperan. 'Txokoloren diana' izena du, eta Jose Luis Frantzesenak egin du



Helduen danborradako taldeen kokapena: plazan eta parroki aurrean.



Eusebio Agote

Donostian bizi da; Landeta taldean irteten du

“San Sebastianak herriko festarik handienak dira niretzako”

Eusebio Agote Donostian bizi den azpeitirra da. Duela 38 urte hasi zen Landetako soziedadeko taldean irteten helduen danborradan. Beti zuzendari irten izan du.

● Nolatan ateratzen zara danborradan?

Landetako taldea Pedro Mari Illarramendi *Marttue*-k zuzentzen zuen. Gero eskozesak zuzentzen hasi zen, koadrila osoak handik irteten zuen eta. Ni *Marttue*-ren partez hasi nintzen Landetako elkartekoak zuzentzen. Berak erakutsi zidan zuzentzen. Beti zuzentzen irten izan dut. Hainbeste urtean irteten dugunok hiru gelditzen gara: *Marttue*, *Kanpaxa* eta hirurok. Geure artean 110 bat urte eramango ditugu zuzentzen.

● Noiztik?

Duela 38 urte hasi nintzen danborradan irteten, Landetakoak brusekin irteten hasi zirenetik.

● Danborradan parte hartzen hasi zinenean Azpeitiari bizi al zinen?

Ni 11 urterekin Donostiara joan nintzen ikastera. Ikasketak amaitu arte han pasatzen nuen astea. Asteburuetan itzultzen nintzen etxera. Danborradan irteten hasi nintzenean unibertsitatean orduantxe hasita nengoen, eta ikasketak amaitutakoan Donostiara ezkondu nintzen. Baina, hala ere, askotan etortzen naiz Azpeitira.

● Entseguetara etortzeko ohiturarik ba al duzu?

Entsegu fijoetara etortzen naiz. Gainera, orduan eza gutzen ditut taldean irten-go duten kide berriak. Danborradarako pieza berriak ateratzen direnean zuzendariak piezak jakin egin behar izaten ditu eta

“38 urte daramatzat danborradan parte hartzen, eta beti Landetako elkartekoak zuzentzen irten dut”

orduan entsegu guztietara etorri izan naiz.

● Herriko beste festetan-eta etortzen al zara?

Bai, baina ni Donostian bizi naiz eta han festak direnean hemen ere izaten dira. Bietan ibiltzen saiatzen naiz.

● Zer dira San Sebastianak zuretzako?

San Inazioak-eta herriko festak dira, baina niretzako San Sebastianak gure festarik handienak dira. Urtean zehar ikusten ez dudan jende askorekin hitz egiteko aukera ematen dit.



Xanti Iriarte

“San Sebastianak herri festa handia dira eta beti hartu izan dut parte; Azpeitiko festa guztiak dira bereziak”

Xanti Iriarte, Bilbon bizi den azpeitiarra da. Duela 28 urte joan zen hara. Eta Azpeitiko danborradan duela 25 urtetik hartzen du parte; Alkartasuna taldean irteten du danborra jotzen.

● **Nolatan irtetzen duzu danborradan?**

Guk, koadrila bezala, talderik ez geneukan, eta eskozesetatik (Alkartasunatik) irteteko gonbidapena jaso genuen.

● **Noiztik zabilta?**

Duela 25-26 urte hasi nintzen danborradan irteten. Ni ezkondu eta Bilbora joan nintzen bizitzera duela 28 bat urte. Baina asteburu guztietan etortzen naiz Azpeitira. Azpeitiar-azpeitiarra naiz eta. Herrira etortzen ez naizenean gaixo edo peto nagoen seinale dela esaten didate lagunak.

Familia, koadrila, giroa, dena dut Azpeitian, eta, beraz, danborradan ezin hutsik egin.

● **Herriko beste festetan-eta izaten al zara?**

Herriko festa guztietan hemen izaten naiz eta baita parte hartu ere. Orain gutxiago, adinean aurrera noalako, baina askotan irten izan dugu koadrilan inauterietan eta.

● **Zer dira San Sebastian festak zuretzako?**

Niretzako, herri festa handi bat dira. Negan izaten da, Santo Tomasak pasatu eta berehala. Beti hartu izan dut parte eta urte batzuetan ere lanera gau-pasa eginda joan izan naiz. Niretzako, Azpeitiko festa guztiak dira bereziak.

Bilbon bizi da; Alkartasunan irteten du



Xanti Iriarte danborradan. / SANTI IRIARTE

Jose Luis Etxaniz

“San Sebastianak niretzat herriko festarik kuttunenak dira”

Jose Luis Etxaniz Zumaian bizi den arren, egunero etortzen da Azpeitira lanera. Gaztetatik irteten du helduen danborradan, Ardozaleak taldean.

● **Zenbat urte daramazkizu kanpoan bizi-tzen?**

Duela 17 urte joan nintzen Zumaia bizi-tzera; ezkondu eta gero.

● **Lehenengo aldiz noiz irten zenuen danborradan?**

16 urte nituela irten nuen aurreneko aldiz.

● **Beraz, Zumaia bizitzera joan baino lehenagotik irteten zenuen danborradan.**

Bai, bai. Lehenengo aldiz 16 urterekin irten nuen danborradan, lagun batzuekin, Irrintzi taldetik.

● **Hasierako urte haietatik hona denbora pasatu da...**

Bai, 27 urte inguru izango dira. Hasiera



Jose Luis Etxaniz, semearekin. / JOSE LUIS ETXANIZ

Zumaian bizi da; Ardozaleetan irteten du

haietan Irrintzi taldetik irten banuen ere, gero Ardozaleak taldetik irtetzeko aukera eduki nuen eta badira urte dezente talde honetan irteten dudala.

● **Gustuko festa al duzu San Sebastian bezperako danborrada?**

Niretzat, herriko festa kuttunenetakoa da. Ni irteten naizen taldeak (Ardozaleek), gainera, bi aldiz irteten du: bezperan eta San Sebastian eguneko goizeko kalejiran. Gainera, zenbait urtetan hiru aldiz ere irteten dugu (bandera jaitzieran). Beraz, guretzat festa ez da egun batekoa izaten. Hala ere, ederrena lagunarteko afaria eta giroa dira; kanpoan bizi diren lagunak ikusi...

● **Herriko beste festaren batean parte hartzen al duzu?**

Etorri, etortzen naiz festara eta beste festez gozatzen dut, baina ez dut irteten. Koadrilako jendea-eta kaldereroak antolatzen aritzeaz gainera, atera ere egiten dira, baina ni ez. Zumaia joan nintzenean ez zen kaldererorik izaten Azpeitian eta hori geroko gauza denez, ba ez dut irteten. Baina beti etortzen naiz festetara.

Jose Inazio Larrañaga

Donostian bizi da; Zokoan irteten du



Zokoako taldea osorik. Azken iladan, zutik eta eskuinetik hirugarrena da Jose Inazio Larrañaga.

“Ni Donostian bizi arren, festetan beti gogotsu etortzen naiz Azpeitira”

Jose Inazio Donostian bizi da. Duela 30 urte hasi zen danborradan irteten Zokoak taldearekin.

• Nolatan ateratzen zara danborradan?

Garai batean ez geneukan talde propioirik eta eskosezetatik irteten hasi nintzen.

Zokoa elkarteak taldea ateratzea erabaki zuen eta elkarte horretako kidea naizenez, bertatik irteten dut.

• Noiztik?

Danborradan lehendabiziko aldiz 18-20 urte inguru nituela irten nuen. Zokoatik taldea ateratzea erabaki arte ezin izaten nuen urtero danborradan irten, baina harrezkerotik bai.

• Azpeitian bizi zinenean ere irteten al zenuen?

Bai, Donostiara duela 25 bat urte joan nintzen eta duela 30etik irteten dut.

• Herriko beste festetan-eta etortzen al zara?

Bai, Donostian bizi arren, festetan beti etortzen naiz Azpeitira. Lagunekin-eta egoteko hilean behin edo bitan behintzat etortzen naiz. Herriko festetan beti etortzen naiz. San Sebastianetan bezala, gogotsu etorri ohi naiz herrian festak direnean.

• Zer dira San Sebastianak zuretzako?

Niretzako, herrian dauden festarik ederretakoak dira. Gazteagoa nintzenean gogotsu bizitzen nituen. Orain ere bai, baina gauzak lasaiago hartzen ditut.

Natxo Garde

Iruñean bizi da; Alkartasunan irteten du

“San Sebastianak azpeitiarrentzat Iruñekoentzat San Ferminak bezalakoak dira”

Natxo Garde Iruñean bizi da. Txikitatik etortzen da Azpeitira. Danborradan familia osoak irteten du, tradizioa bilakatu da haienean. Alkartasunan irteten du.

• Nolatan danborradan?

Nire familia azpeitiarra da eta familiako gehienek irteten dute danborradan. Tradizio modukoa da gurean eta horregatik irteten dut.

• Noiztik?

Duela hamar bat urtetik.

• Iruñekoa zara; Azpeitira sarri etortzen al zara?

Ni Iruñean bizi naiz, baina familia osoa Azpeitian bizi da. Txikitatik sarritan joaten naiz Azpeitira; txikitan uda partean-eta beti joaten nintzen.

• Entsegetara etortzen al zara?

Ezin izaten dut joan, hurrengo egunean lanera joan behar izaten dudalako. Baina aste bat lehenago-edo etxeko salan entseatzat ditut danborradako piezak.

• Herriko beste festetan parte hartzen al duzu?

Festetara joateko ohitura dut. Normalean, Gabonetan, San Sebastianetan, San Inazioetan eta inauterietan joaten naiz.

• Zer dira San Sebastianak zuretzako?

Ni Iruñekoa naiz baina Azpeitiarekin oso lotura handia dut. Niretzako, San Sebastianak sentimendu berezi bat dira. Konparaketa bat egitearren, azpeitiarrentzat, Iruñekoentzat San Ferminak diren bezalakoak dira.



Natxo Garde (eskuinean) osabarekin. / FESTAK.COM

OILO-SORO, AURTEN BAI

Talde berria izango da helduen danborradan: Oilo-Soro. Erriberako artzainen arropa aukeratu dute

Enekoitz Esnaola

Helduen danborradan talde berria izango da aurten: Oilo-Soro soziedadea (Damaso Azkue auzoan dago). Azpeitiko Udalak eta danborradaren batzordeak iaz araudi berria atera zuten, eta Oilo-Sorokoak tentatuta egon ziren irteteko, “baina denborarik ez geneukan arropak-eta egiteko, eta ez genuen izenik eman”, diote soziedadean danborradarako sortu den batzordekoek.

Aurten bai. Eta dena prest daukate: arropak, danborrak, zuzendaria... 50 lagunek eman dute izena. Soziedadean bertan 56 bazkide dira (1997ko urrian inauguratu zuten), eta bazkide horietatik 36 apuntatu dira; beste 14 lagunek ere eman dute izena. 50 horien artean danborjole beterano batzuk ariko dira, orain arte Barratsun, Alkartasunan, Arauntzan,

Mendizaleetan, Gure Ametsan edota Ardozaleetan ibili direnak Oilo-Sorora pasatu baitira.

Jantzia aukeratzean, “garbi” zuten gauza bat: “Arropa militarrik ez; hori oso garbi genuen jantzia aukeratzen hasi ginenean”. Erriberako (Nafarroa) artzainen arropa aukeratu dute, Euskal Herriko jantzien berri dakarren liburu batzuetan bila ibili ondoren. Azpeitian bertan egin dituzte jantziak; Esperanza Villegasek, diseinatu eta josi —14 urte daramatza danborradako jantziak egiten, eta Barratsurena, Zezenzaleena, txikietan Betharramdarretako talde batena... egin izan ditu—. Banderaren egilea, berriz, Ana Mari Agirre azpeitiarra izan da —berak egin izan ditu besteak ere—; banderak, alde batean, soziedadeko irudia eramango du —oiloa— eta bestaldean, ikurrina, lauburua eta euskal presoen aldeko izara.

Txapa joko dute Oilo-Sorokoek, hurrengo talde berriari hala tokatzen zitzaizolako. Donostian egin dizkiete danborrak.

San Sebastian egunean gauez ere joko du taldeak.

Jon Galdos

“Zuzendari probatzeko gogoia daukat”

● **Ez duzu lehen aldia nagusietan zuzendari bezala, ezta?**

Ez, txikia nintzela aitaren ondoren irteten nuelako Arauntza taldean; zuzendaria zen gure aita. Hiru bat urtean irten nuen. Baina hura beste kontu bat zen; nik, ondoren egotearekin nahikoa nuen, aurreneko aldian zazpi urte besterik ez nituelako.

● **Gero, nagusien danborradan beti danborra jotzen.**

Barratsun. Baina badut gauza berri hau probatzeko gogoia.

● **Zer dela-eta zuzendari?**

Bromatan hasi ginen sozieda-



dean, eta neuri esaten zidaten zuzendari izateko, lehen ere izana nintzelako. Eta broma zena gauza serioan bihurtu da.

● **Serioan?**

Beno, esateko modu bat da. Baina bai sortzen didala ardura bat, taldean beterano asko dauden arren, taldea bera azken batean berria delako.

● **Piezak entzun eta entzun jardungo duzu?**

Bai horixe! Barratsun beti larruarekin eta orain Oilo-Soron txaparekin; badago aldea, batzuetan une desberdinetan jo-

Oilo-Soro taldeko zuzendaria



Jon, Luis aitarekin, Arauntzan, 1975ean, zazpi urte zituela.

tzen delako. Beraz, txipa aldatu eta saiatzen ari naiz ondo ikasten. Taldeak, besteekin entsegu orokorrak egiteaz gain, beste bi entsegu ere egingo ditu.



DANBORJOLE TXIKI BERRIAK

Aurtengo haurren danborradan talde berria izango da: Juan Antxieta Musika Eskola. Berekin, bederatzi talde izango dira San Sebastian egunez. Musika elementuekin jokatzu osatu dituzte jantziak

Aintze Oruesagasti

Juan Antxieta Musika Eskola-ko taldea aurtengo aurreneko aldiz izango da danborradan; haurrenean. "Danborradan irte- teko asmoa sortu eta Udalare- kin harremanetan jarri ginen. Baiezkoa jaso genuenean lane- an hasi ginen, taldea sortzeko",

esan dio Uztarriari Mari Jose Bikendi, Musika Eskolako zu- zendariak.

Erantzuna duela urtebete jaso bazuten ere lanik handienak az- ken hiru hilabete egin dituzte. "Azken detaileak falta dira, bai- na gehiena prestatuta dugu. Jantziak Donostiatik ekarri ditu- gu. Gure asmoa, musika esko-

lako taldea garen aldetik, gure alorrekin zerikusia duen jan- tzia izatea zen. Baina garai har- tan musika bandarik ez zenez, orduko tronpetajoleek eta egungo musika bandek dituz- ten elementuekin jokatzu osatu dugu jantzia. Emaizta ikusita, oso gustura gaude", dio Biken- dik.

“Lehengo tronpetajole eta egungo banden elementuekin jokatzu osatu dugu jantzia”

Mari Jose Bikendi
(Juan Antxieta zuzendaria)

Musika Eskolakoekin bedera- tzi izango dira Azpeitiko haurren danborradako taldeak. "Talde- an, aurtengo bederatzi eta 12 urte egiten dituzten gaztetxoak izan- go ditugu. Denera 40 haur: 35 danborjole, bi zuzendari eta hi- ru kantinera".

Danborradan, danborrez gain, barrika eta txapak izaten dira. Juan Antxieta txapak joko ditu. "Danborrak nahi genituen, baina ez da nahi kontua baka- rrik. Udalarekin hitzegin genu- nean txapak tokatzen zitzaizki- gula esan zigun. Horrela guz- tion soinua orekatuagoa izango da".

ALDEA? Jakinekua da eskola horretan musika eta erritmoa lantzen direla. Beraz, horko haurrek beste guztien artean abantaila ote duten galdera egi- tean Bikendik zera dio: "Bene- tan saiatuko gara umeak ondo jo dezaten. Dagoeneko esan di- date: 'Musika Eskolakoek *nota* emango dute ez?!'; eta horrela- koak. Lantzen dugun erritmoa erakusten saiatuko gara".

Urte osoan zehar herrian iza- ten diren festa eta jaietan beti hor izaten direla dio Bikendik. "Danborradan irteteak poz han- dia ematen digu. Era berean, herriarentzat lan egiten dugula eta herrian integratuta gaudela erakusten du honek".

Entseguak, kaleetan bozgo- railuekin probak egiten... Doinu berak izaten diru buruan San Sebastian eguna hurbiltzen ari dela. "Entseguak egingo ditugu. Urduritasuna eguna gerturatzeko- arekin batera etorriko da. Orain- dik, nik uste, ez gara ideiera egin. Hala ere, eguraldi polita eskatzen diot urtarilaren 20ari. Uste dut umorearekin eta gogo- arekin guztiok irtengo dugula eta". •

datue

109

azpeitiarrek atera zuten EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) abenduaren 13an, tramitazio egunean. Dagoeneko 683 azpeitiarrek atera dute.

dato historikue

30

urte dira abenduaren 3an Ildefonso Gurrutxaga abokatua, politikaria, historialaria eta humanista azpeitiarra hil zela.

esaerie

“Eginak txikiak ta hotsa haundia”

liburutik ttak

“1966an, Salvatore Mitxelen hil zela eta, honela gogoratzen dio Pedro Rocamora Jose Artetxeri, hogeitaz lehenago, 1947ko irailaren 9an, berak, Itxaropena argitaletxeko Patxi Unzurrunzagak eta hirurak izan zuten elkarriketa. Entrebista horretantxe lortu zuten, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu* poema eta Orixeren *Euskaldunak* poema publikatzeko baime. Honela idazten zion Lisboako Espainiako enbaxadatik: ‘(...) *Ciertamente que eran aquellos tiempos más difíciles que los actuales. Pero le aseguro que fue para mí una inmensa satisfacción romper aquellas trabas y mitigar aquel rigor con que el pueblo vasco veía limitada la proyección literaria de sus creaciones vernáculas*’. Pedro Rocamora Propagandako burua zen Francoren hirugarren gobernuaren (...).”

Juan Mari Torrealdai. ‘Artaziak’. Susa argitaletxea. 2000. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



ELIZKALETIK ERDIKALERAKO PASABIDE ESTALIA

Era guztietako iritziak sortu dira herritarren artean Eliz kaletik Erdi kalerako pasabidea dela eta: oraingo etxea bota eta beste bat altxatzean pasabidea galdu edo ez. Ez da oraingo kontua horri buruz iritziak sortzea. Baina noiztik da toki horretan pasabidea?

Jose Urbistondo zen etxearen jabea 1908. urtean eta obrak egin nahi izan zituen, herriko agintariak pasabidea ez ixteko eskatu zioten, betidanik errespetatu zutelako etxe horretakoek, garbi adieraziz haren antzintasuna. Obrak egitean, ordea, bere jabeak ixtea nahi zuen, aurretik herrian betirako beste pasabide batzuk itxi ziren bezala, Santiago kaletik Eliz kalearekin bat egiten zuena Isisti etxearen azpitik eta Erdi kaleak bat egiten zuena Akutainen etxe azpitik.

Herriko agintariak jarri ziren Urbistondorekin

harremanetan 1908an, eta honek errenta eskatu zuen pasabideak zabalik jarraitu behar bazuen: urtean 75 pezeta edo behingoz 2.500 pezeta. Agintariak ez zuten onartu urriaren 28ko udalbatzarrean. Benetan gaizki hartu zuen erabakia etxejabeak; idatzi bat aurkeztu zion Udalari, jakinaraziz ez zitzaiola sekula eskatu inolako ordainketa gabe pasabidea zabalik edukitzea eta errenta proposamen hori egin zuela berekin harremanetan jarritako agintariak bultzatuta. Erabakia hartzean idatzitako aktari, hori bera erantzea eskatu zuen.

Beste era bateko arrazoia ere agertu zituen Urbistondok gero, adieraziz herriak inolako eskubiderik ez zuela pasabidearekin, berekin harremana izan zuten agintariak eztabaidak izan zituela, zabalean zer neurritakoa izan behar zuen erabakitzeke... Adierazi zuen

garai bateko Azpeitiye ...Jose Etxanizek kontatua

Suaren epelean baserrian

Suaren epeleko beroak, Aizarnazabalgo senideen baserrian pasatutako garaiak gogorarazten dizkio Jose Etxanizi

Ainitze Oruesagasti

Jose Etxaniz, umetan Aizarnazabalgo amaren eta lehengusuen baserrian hainbat lan egindakoa da. Eta umetan baserrian egindakoa lan eta gorabeherak kontatu dizkio Uztarriari.


Gaur egun, etxe gutxitan aurki daiteke beheko sua. Lehen, aldiz, baserri eta kale etxe askotan izaten omen zen. “Ni Aizarnazabalera joaten nintzen amaren eta lehengusuen baserrian laguntzera. Negu garaian hotz handia izaten zen eta beheko sua beti izaten genuen baserrian”. Giro ona edo txarra egin, lana egitea beharrezkoa izaten zen, Etxanizek dioenez, askotan blai eginda iristen zirelako baserri. “Giro txarrarekin-eta lanera irteten genuenean, arropak eta oinetakoak su ondoan jartzen genituen lehertzeko. Taloak ere egiten ziren sutan, eta askotan kafea ere bertan berotzen genuen; gero, su hondarren artean geldit-

tzen zen egur gorria kafetan sartzen genuen. Egundoko zapore ederra ematen zion kafeari. Su ondoan ere askotan erreztatzen genuen”.

Sua egiteko, ordea, erregaia ezinbestekoa da eta egun produktu ezberdinak badaude ere, Etxanizen hitzetan pagoaren egurra da onena. “Sua egiteko egurrik onena pagoarena da. Haritzaren egurra ere ederki erretzen da. Aldiz, gaztainondoarena sutarako txarra da; kea egiten du ederki, besterik ez”.

Egur biltzen ere ibilia da Etxaniz. “Ganadua hartuta, egurretara joaten ginen basora. Sua egingo bagenu, egur asko behar izaten zen baserrian, eta idi edo behiekin gurdia hartuta joaten ginen”.

Etxanizen umetako garaian, gaur ez bezala, asto ugari izaten omen zen baserrietan. “Astoa baserrian edukitzeko animalia erraza da; erraz mantentzen da. Behiek lagatuko belar ondo eta janari sobreakin nahikoa du. Lan handirik eskatzen ez duen animalia da”.



Eliz kaletik Erdi kalerako pasabidearen irudi bat. / UZTARRIA

● **ERRENTA.** Jose Urbistondok, 1908an pasabidea irekita mantentzekotan errenta ordaintzea eskatu zion Udalari

azkenean pasabideak zabalik jarraituko zuela, baina bere borondatez eta ez herriak eskubi-deak zituelako beregain.

Ondorengo berririk ez dugu aurkitu, baina egia zera da: urteetan zabalik izan dela pasabidea. Gero, gerokoak...



Mutiko bat baserri ondoko lanetan.

“Kafeari egur hondar goria sartzen genion. Zapore ederra ematen zion”

Jose Etxaniz



Auzolanak, inguruko baserrietako jendearekin egiten zituzten Etxanizek eta haren familia-koek. “Inguruko bizilagunekin elkartzen ginen garia-eta biltzeko. Lan handia eskatzen zuen lanetan elkartzen ginen, elkar laguntzeko”.

LAGUNTZA. Mutil kozkorra beharrezkoa zen baserrian. Etxanizek kontatu duenez, umetan beharrezkoa izaten zen mutil kozkorren laguntza baserriko lanetan. “Otarra alde batera eta bestera eramateko, soroan lanean ari zirenei ura eta merienda eramateko eta itulari bezala jarduteko beharrezkoa zen mutila. Ni neu itulari bezala ibilia naiz osabarekin. Uda iristean, bi hilabeterako joaten nintzen baserri- ra eta han osabari laguntzen jarduten nuen. Soroan artoa egiteko, ni behiak aurretik gida- tzen eta atzean osaba joaten zen bostortzare- kin”.

abizena

AIZPURU

● Banaketa semantikoa.

- Aiz-: haitza.
- -puru: burua.

● **Esanahia.** Haitzaren gailaldea, tontorra, punta.

● **Armarria.** Urrean egina, zuhaitz berde bat, eta basurde bat enborraren aurretik pasatzen azaltzen da armarrian.

● Abizenaren kokapena.

- Azpeitia.
- Azkoitia.
- Zumarraga.

● Abizenaren hedapena.

● Azpeitia (1670, 1675, 1676, 1690, 1740, 1767, 1774).

- Zumarraga (1383).
- Elgoibar (1345).
- Bidani (1684).
- Zumaia (1746).
- Ezkio (1775).
- Hernani (1756).
- Zestoa (1749, 1773).
- Urretxu (1643).
- Getari (1776).
- Villabona (1798).
- Oñati (1616).

‘www.paisvasco.com/heraldica’. webgunetik hartua.

komunikabidiek

‘HITZA’-REN 0 ZENBAKIA URTARRILEAN

Uztarriaren aurreko zenbakian genioen otsailean sortuko dela **Urola-Kostako Hitza** euskarazko egunkaria, eskualdeko euskara elkarteek —tartean Uztarriak—, **Berria**-ren enpresa EKTk eta gizarte eragileek sortuta. Egunkariaren 0 zenbakia, berriz, urtarriaren erdialde- ra banatuko da: zortzi orrialdekoa izango da, eta, beste- ak beste, proiektuaren ezau- garriak azalduko dira.

gertuko pasadizue

FRANTZESENAREN PIEZA BERRIA

● **HARKAITZ ELORZA:** "Hiru urtetan irten nintzen zuzendari. Niri tokatu zitzaidan one-na izan zen, urte horretan Frantzesenaren kantu berria estreinatzea. Haurrek jo behar zuten pieza hau lehen aldiz, eta plaza berdur-
an entsaiatzen zuten arratsaldetan. Itsasin, ber-
ritz, entsaioak gauetan egiten zirenez, ga-
rai hartan etorri zen Frantzesena bi entsaio-
tara. Eta gogoratzen naiz, Frantzesena kon-
positorea, Mikel eta nik erabaki genuela nola
jo behar zen danborra pieza berri horretan.
Niretzako une oso berezia izan zen hura".

'Azpeitiko Itsasi Taldea 25 urte' liburutik hartua.
Itsasi Dantza Taldeak argitaratua. 2002. urtea.



Txikien danborrada. / UZTARRIA

gazteriye

GAZTEENTZAT ASTEKARI BERRIA LASTER

Durangoko Azokan *Xirika* Euskal Herriko gazteentzako astekari berriaren proiektua-
ren berri eman zuten. Urtarri-
laren erdialdera 0 zenbakia
kaleratzeko asmoa du Ze-
zengorri SARL enpresak, eta
otsailetik aurrera astero es-
kuratzeko aukera izango da.
Astekaria izango da, euskara
hutsean eta 24 orrialdekoa.
Gaurkotasuna, iritzia eta
denborapasei leku egingo
dion produktua atera nahi du-
te.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ZUNTZA

● **ASKO.**
Zuntz asko
ilarak, azak,
bainak eta
azenarioak
dute

Bazkari edo otordu guztietan kontuan hartu beha-
rreko elementua da zuntza; liseriezineko polisa-
karidoen multzoa da. Beraz, hesteek ez dute absorbi-
tzen eta hor gelditzen da, hondakin bezala, mugimen-
du peristaltikoei laguntzeko; uhinen mugimenduen
antzeria, janarietako beste hondakinei bultzatzen die
kanpora ateratzeko. Idorreria saihesteko era biologi-
koa da.

Fibra edo zuntz gehien duten elikagaien artean,
hauexek daude: ilar berdeak, azak, bainak eta azena-
rioak. Egoskariak ere zuntzez aberatsak dira eta, be-
reziki, babarrun gorria. Fruta lehorrez ere gauza bera

esan daiteke. Fruta freskoek ere aberastasun hori
badute baina aleak eta zukuak ezberdinak dira. Behin
eta berriro errepikatuko dugu fruta osoak jan behar
direla, ahal bada azal eta guzti, garbitu ondoren, eta
ez zukuak, zuntz guztia zukugailuan gelditzen da
eta.

Zerealaren kasuan, integrala den guztia jar dezagun
mahai gainean, azala mantenduz, bai ogia bada eta
baita arroza edo gailetak direnean ere.

Zenbat eta zuntz gehiago kontsumitu, orduan eta
hesteetako polipo, koloneko minbizia, uzki-
ko fisura eta abar gutxiago izango dugu.

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASA BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ
LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK.
HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA,
CAMBRIDGE, TOEFL

HELDUENTZAT 0-TIK HASITAKO TALDEAK

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk.

Tel.: 943 81 65 03



- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien
mantenua
- Belar landaketa eta tepe
egur, harri edo txilar
jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

UDALA	2003. URTEA	UDALA	2004. URTEA
Udalaren aurrekontu propioa	15.892.410 euro	Udalaren aurrekontu propioa	16.234.514 euro
Udalaren aurrekontu osoa	20.214.019	Udalaren aurrekontu osoa	20.838.864

SAILAK EDO ERAKUNDEAK	2003. URTEA	SAILAK EDO ERAKUNDEAK	2004. URTEA
Ogasuna eta Ondarea	1.211.753 euro	Ogasuna eta Kontuak	1.301.093 euro
Hirigintza	5.037.563	Hirigintza eta Ingurumena	4.083.335
Hezkuntza	251.907	Hezkuntza eta Euskara	413.247
Kultura	413.586	Kultura eta Gazteria	525.535
Kirolak	500.375	Kirolak	550.544
Gizarte Zerbitzuak	873.842	Gizarte Zerbitzuak	868.053
Baserriak	353.000	Giza baliabideak eta Antolakuntza	4.291.739
Festak	535.146	Festak	436.417
Zerbitzu Orokorrak	5.292.586	Zerbitzu Orokorrak eta Baserriak	3.033.235
Goi-karguak	728.770	Alkatetza	299.015
Merkataritza eta Turismoa	107.684	Industria, Merkataritza eta Turismoa	432.300
Gazteria	206.075	Gazteria	----
Ingurumena	380.118	Ingurumena	----
Udal Kirol Patronatoa	632.586	Udal Kirol Patronatoa	656.845
Euskara Patronatoa	392.769	Euskara Patronatoa	525.205
Azpeitia Lantzen S.A.	3.233.527	Azpeitia Lantzen S.A.	2.899.357
Lapatx Zabortegia S.A.	1.202.000	Lapatx Zabortegia	1.440.000

AURREKONTUAK: DIRU GEHIAGO ETA AZKARRAGO

Abenduaren 23an 2004rako udal aurrekontuak onartu ziren, EAJren, EAren eta PSE-EEren botoekin. Habeak, herri proiektuen “akordio” proposamena egin zuen

Herria Uranga

Aurtengo udal aurrekontuak urtea hasteko onartu dira; abendua-ren 23an onartu ziren udalbatzarrean EAJren, EAren eta PSE-EEren botoekin. Habea kontra azaldu zen. Udal hauteskundeen ostean eta ekainaren 14an osatutako udal taldeak onartu dituen lehen aurrekontuak dira aurtengoak.

● **URTEA HASTERAKO.** Iaz, urtearen bukaera onartu ziren 2004 udal aurrekontuak; azken urteetan ez bezala. Aurreko urteetan urtea hasita onartu izan dira: 2003koak martxoan, 2002koak maiatzan eta 2001 eta 2000koak martxoan.

● **600 MILA EURO GEHIAGO.** Aurten Udalak iaz baino 624 mi-

la euro gehiago izango ditu ku-deatzeko. Iaz, aurrekontu osoa —Azpeitia Lantzen S.A.ko, Lapatx Zabortegia S.A.ko, Euskara Patronatoko, Kirol Patronatoko aurrekontuak gehituta— 20,2 milioi eurokoa zuen eta aurten 20,8 milioikoa du. Aurrekontu propioa, 2003an 15,8 milioi eurokoa zuen eta 2004an 16,2 milioikoa du.

● **SAILETAN ALDAKETAK.** Udal hauteskundeen ondoren EAJk eta EAK sailak aldatu eta berriak sortu zituzten. Iazko eta aurtengo aurrekontuetan alde-rik handienak bat egin duten sailetan eta berrietan daude. Kirolak eta Gizarte Zerbitzuak sail-ek iaz eta aurten aurrekontua antzekoa dute. Aldiz, Zerbitzu Orokorrak eta Baserriak-ek (iaz bi sail ziren) 2,5 milioi euro gu-txiagokoa du. Baina Giza Balia-

bideak eta Antolakuntza sail be-riak aurten 4,2 milioi euro ditu.

● **HABEAK PROPOSAMENA.** Habeak EAJ-EAri aurrekontuen inguruan akordiorako proposa-mena egin dio, arloka zenbait puntu zehaztuz. Habea, *Eman Hitza* prozesua eramaten ari da bai aurrekontuei eta baita au-rreragoko kontuei begira ere. Arloka batzar irekiak egin dituz-te, eta Habeakoen esanetan, parte-hartze “handiarekin”. Ar-loka ekarpenak jaso eta udal gobernu osatzen duten alder-diei “akordiorako” proposame-na egin die. Honatx proposa-menak: Kulturen, Soreasu era-berritu eta kultur erabilera ani-tzerako bideratzea; Etxebizi-tzan, etxebizitza sozialak edo publikoak egitea —“guk Gar-mendi inguruan badugu proiektu bat—; Kirolan, kirol gunea

Loiolabidera zuzenduta; Eus-karan, EBPNko proiektuaren definizioa eta parte-hartzea bermatzea; Auzoetan, beha-rrezko zerbitzuak jartzea; Ema-kumearen saila sortzea udale-txean eta horretarako teknikari postua sortzea; eta “Habeari dagokion diru partida ematea”. “Akordiorako proposamena egin eta aurrekontuak onartze-ko udalbatzarra atzeratzea es-kuatu genien. Baina gure akordio proposamenari heltzeko prest ez daudela pentsa dezakegu”, diote Habeakoek.

Udalbatzarrean Julian Eiz-mendi alkateak, puntuka eran-tzun zien Habeakoei. “Aurten kirol gunerako partida garran-tzitsua jarri dugu. Datorren urte-rako kultur arloko inbertsioa du-gu aurreikusita, eta etxebizitze-na gure programan letra handiz idatzita dugu”. ●

ENTRENATZAILEAK ETA GAZTEAK

Aitor Zulaika, Joseba Zubizarreta 'Galtxa' eta Joseba Aranguren, hiru lagun, hiru azpeitiar. Hirugarren Mailako eta Preferenteko entrenatzaileak dira, baina nola bizi dute futbola?



Kepa Urbieto

Aste amaiera gainean eta oraindik ezer garbirik ez. Urduri gerta daitekeenaz eta irmo agertu behar. Pentsatu eta pentsatu; nire erabakiek dute azken hitza beraz, nire erabakien erantzule bakarra neu naiz. Herri baten parte, talde baten buru eta lagunaren lagun izatearen ardura bizkarrean. Entrenatzaile batek hau eta gehiago dauzka berarekin.

Txikitatik ibiliak dira Joseba Aranguren, Joseba Zubizarreta *Galtxa* eta Aitor Zulaika futboleak. Euren bizitzako parte izan da kirol hori urteetan eta oraindik ere futbolaren zaporea gogoko dute. "Hainbeste gustatzen zait futbola, aukera etorrita ezin diodala ezezkua eman, eta gero futbola berak lotzen zaitu", esan dio aldizkari honi Galtxak; Zarautzeko entrenatzailea da. Baina futbola ulertzeko moduak daude eta modu horiek aldatu egiten dira nondik begiratzen den. "Nik jokalaria bezala egingo ez nituzkeen gauzak eskatzen dizkiet orain nire jokalariei", dio Galtxak.

ZALEEN PRESIOA. Urte gutxi dira hirurak kargu horretan dabiltzala eta erronkari gogoz heldu diote. Entrenatzaile izateak bere zama dakar, talde baten arduradun zaren unetik hasita eta talde hori emaitza eta joko egokien bidetik zuzendu beharrak presioa ekar liezaioke edonori. Urtetik urtera, ordea, Lehen Mailan salbu, ikusle kopurua behera doa eta, beraz, jarraitzaileen presiorik ez dute antzematen. "Presioa guk geure buruari jartzen diogu, aste guztian egindako lanaren etekinik ateratzen ez dela ikusten badugu", dio Lagun Onak taldeko entrenatzaile Zulaikak. Baina presioa beldurraren ondorioa besterik ez ote den esaten da; hau da, jakina da emaitzak lagungarri ez direnean kargua galtzeko dagoen aukera egunetik egunera



“Presioa guk geure buruari jartzen diogu, aste guztian egindako lanaren etekinik ateratzen ez dela ikustean”

Aitor Zulaika

(Lagun Onak-eko entrenatzailea)

handitzen dela, baina Zulaikak nahikoa argi du bere iritzia honen inguruan: “Entrenatzaileen bizitzaren zati da segurtasun eza, baina ez dut horren beldurrik; heltzen denean taldea utzi beharko dudana seinale izango da”.

FUTBOLEKO SEKRETUA. Futbolak denbora eskatzen du, are eta gehiago entrenatzaile bati. Entrenamenduak prestatu eta zuzendu behar dituzte, erabakiak hartu, jokalariez arduratu... Buruari asko eragin behar diote baina bakoitzak bere bizi-tzaz gozatzeko duen eskubideaz gain, gertukoaren arretaz arduratzeko eta aprobe-

“Nik jokalaria bezala egingo ez nituzkeen gauzak eskatzen dizkiet orain nire jokalariei”

Joseba Zubizarreta ‘Galtxa’

(Zarautzeko entrenatzailea)

txatzeko eskubidea ere bada. “Bizi egin behar dut eta profesionalak ez garen neurrian ez dugu horrenbeste lan egin behar”, irizten dio Zulaikak.

Zaletasuna, maitasuna eta beharra. Futbola definitzen duten hiru hitz izan litezke; ados agertzen dira entrenatzaileak horretan. Baina garbi dutena da futboleko jarraitzeko ezinbesteko osagaia taldean dagoen giroa dela. Joseba Aranguren, Zulaikaren laguntzailea da, eta berak ere badio batzuetan ez dutela ondo pasatzen: “Une txarrak pasatzen ditu entrenatzaileak; partidako deialdia ematerakoan esate baterako. Nik abantaila dut alde horretatik, joka-

“Konfiantza handia dago gure artean eta uste dut harreman ona dugula jokalariekin”

Joseba Aranguren

(Lagun Onak-eko atezainen entrenatzailea)

larien eta entrenatzailearen artean baina-go. Hala ere, konfiantza handia dago gure artean eta harreman ona dugu jokalariekin”. Eta hori esateaz batera, honela lagundu dio Galtxak: “Jokalaria bereiztu egin behar du noiz eta non nola ibili. Maila hauetan ezin da aurrera jarraitu [Lagun Onak, Hirugarren Mailan; Zarautz, Prefe-renten], giro onik ez badago taldean”.

Batzuk etxean dauden bitartean beti daude neguko eguraldi hotzetan bustitzen diren entrenatzaileak. Honek barruan gordetzen ditu: direla sekretuak, direla dudak, direla sentimenduak. Ez da lan erraza. Denboraren eskuetan daude. ●

Larruzko eta antezko arropak garbitzeko eraman itzazu profesionalengana EGIN BEHAR EZ DUZUNA!

- Mantenimentua. Zaintze lanak
Mantenimendua
Larrua hautsetik eta argitik babestu, eta leku itxietan eduki, larruzko arropak *arnasa* hartu behar baitute. Gehienez ere 20ºko tenperaturan. Hezetasuna: 70º igrometrikokoan.
Nola zaindu larrua?
Larru urratua: leun-leun eskuilatu. Uretan pasatako larruak: trapu leun eta lehorrarekin.
Larru pigmentatuak: trapu hezea erabil daiteke.

EGIN BEHAR EZ DENA!

- Orbanak kentzea. Garbiketa
Garbiketak esan bezala egin ezean, orban inguruan kendu ezinezko ertza azal daiteke. Edozein garbiketak pigmentazioa eta urraduren, produktuen eta abarren ondorioz disolbatutako gaiak berritzea eskatzen du. Hauek gantzeko gai bereziak dira: olioak, koloragarriak eta abar. Garbiketa+ pigmentazio eta birsorketa lana prozesu zaila da, langile espezialduetako tresneria egokia dutenenean egitekoa.

EZ EGIN HORRELAKORIK!

- Zaharberritze espezializatua
Larruetan espezialdutako langileak soilik eskain dezake lan segurua eta aholku egokia eman. Lantoki espezializatuek tresna egokiak dituzte larru jakin batzuk tratatzeko. Jatorrizko tindaketa, lisaketa, itsasketa edo belusatuen zaharberritzea bermatzen dute; akaberaren araberako lan berezi eta zehatzen bidez, egoera bakoitzerako beharrezkoak diren produktu eta koloragarri ugari erabiliz. Espezializatuek

ZERTAN IBILI ARRISKUANI!

bakarrik dituzte tratamendu haue-tarako lanabes egokiak. Larruak zaintzeko tresneria berezia erosi behar izaten dute, lan honek oso teknika berezia eskatzen baitu. Kasu egiezie hauen aholkuei eta zuen jantzien bizia luzatuko duzue jatorrizko ezaugarriak hobeto eta denbora luzeagoan aprobeztatzuz.

- Material konbinatua eta arropak egitea
Larruek sarritan akatsak izaten dituzte, materiala *naturala* delako edo arropak kalitate gutxiagokoak direlako. Aukeraketaren, zurraketaren, akaberaren eta ebakitze-lanaren baitakoa da. Garbiketa arazoak direnean, askotan larruagatik baino gehiago egina dagoen moduagatik izan ohi da.

press to
Kalitatezko Tindategi Azkarrak

Jose Artetxe 9, Azpeitia:
943 81 63 62

EMAKUME BAT BURU

Lagun Onak Mendi Bazkunak lehendakari berria du: Maje Larrañaga. 26. presidentea da Mendizaleetan, eta lehen emakumea. “Ilusioz” hartu du kargua

Nerea Uranga

Lagun Onak Mendi Bazkunak lehendakari berria du; 26.a, eta lehen emakumea. Joan den hilaren 13an egin zen bazkideen batzarra eta lehendakari Maje Larrañaga aukeratu zuten.

Orain dela bost urte, 1998an, hasi zen Larrañaga mendizaleen ibilaldietan parte hartzen. “Kanpoan egon nintzenikasten urteetan eta Azpeitira etorri nintzenean lehengusu batekin mendizaleek haurrentzat antolatzen dituzten mendi ibilaldietara joaten hasi nintzen. Gero, batzordean parte hartzen hasi eta gaur arte. Azken batean, ibilaldietan-eta ateratzen garenak lagun talde handi bat gara. Mendizaleetan ezagututako lagunekin Nepalera joateko, nire ametsa izan dena betetzeko, aukera ere izan dut”.

Lehendakari kargua hartu berri du, ilusioz hartu ere. “Lehen baino ardura handiagoa eskatzen du, baina, azken batean, lan talde bat dago eta erabakiak batzordeak hartzen ditu. Ilusioa ere badut zerbait berria aportatzeko”, dio.

KIROLEAN EMAKUMEAK. Lagun Onak M.B.ko 26. lehendakaria da, eta lehen emakumea kargu horretan. Berak “kasualitate hutsa” dela dio. “Batzordean beti egon izan dira neskak; gaur egun ere bost neska gaude eta horrek eragin duela uste dut”. Hala ere, kirolean emakume gutxi ikusten dela dio. “Egia da kirol elkarreetako zuzendaritzan emakume gutxi ikusten dela, baina kirolean neska gutxiago ibiltzen dela ere esaten da”.

Aurrera begira, elkarteak proiektu ugari du; tartean, elkarte bera biltzen den lokala berritzea, haurren ibilaldiak indartzea eta udaberrian Azpeitian bi ikastaro antolatzea —orientazio eta GPS ikastaroak—.

datuak

- **658 BAZKIDE.** Lagun Onak Mendi Bazkunak 658 bazkide ditu.
- **360 FEDERATU.** Mendi elkartearen mendian federatuta 360 lagun daude. Federatzeko, urtarilean astelehenetan 21:00-etatik 22:00etara elkarteak. ●



Maje Larrañaga, atzean Mendizaleetako lehendakari ohien argazkiak dituela. / NEREA URANGA

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI	
PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48
OSASUNA	
Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112
KOMUNIKABIDEAK	
Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arratellratia(berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
ALDERDI POLITIKOAK	
EAJ	81 30 40
Habea	943-15 72 00 (138)
EA	81 00 11
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28
IKASTETXEAK	
Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
KULTURA - EUSKARA	
Baite Euskara Elkarte	15 03 58
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK	
UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyekek
gauez

URTARRILAK 1-2-14-15-16	
Gisasola (Azkoitia).	02 65 15
URTARRILAK 3-4-12-13-28	
Ruiz (Azkoitia).	85 19 66
URTARRILAK 5-10-11-22	
Garcia.	81 12 74
URTARRILAK 6-23	
Zulaika.	15 03 34
URTARRILAK 7-19-24-25	
Aranburu.	81 13 50
URTARRILAK 8-20	
Beristain.	81 19 49
URTARRILAK 9-21	
Etxebeste.	81 59 74

gune
publikuek
irikite

UDALETXEA	
Astegunak:	9:00-13:30
Larunbatak:	9:00-13:00
IXPIXIOA	
Egun osoz irekita	
IGERILEKUA	
Astelehenak:	14:00-21:00
Beste astegunak:	7:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita
KIROLDEGIA	
Astelehenak:	9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak:	15:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
UDAL LIBURUTEGIA	
Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
Aste Santuan, udan (abuztu	
an itxita) eta Gabonetan:	astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiyek

JOATEKO	
AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA	
Astegunak:	6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	7:40, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
Igandeak eta jaiegunak:	15:10, 19:15
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-ELGOIBAR-EIBAR	
Astegunak:	6:50, 13:50, 15:50, 19:50, 21:50
Larunbatak:	8:50, 15:50, 19:50, 21:50, 0:30, 2:30, 4:30
Igandeak eta jaiegunak:	8:50, 19:50, 21:50
Enpresa:	Eusko Tren

AZPEITIA-EIBAR-BILBO	
Astegunak:	6:35, 13:30
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA	
Astegunak:	6:55, 7:25, 8:25, 9:25, 9:25, 10:25, 11:25, 12:25, 13:25, 14:25, 15:25, 16:25, 17:25, 18:25, 19:25, 20:25, 21:25, 22:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:00, 7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA	
Astegunak:	6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10, 21:50
Asteburuak eta jaiegunak:	7:25, 9:25 (2), 10:25, 12:25, 13:25, 15:25, 16:25, 18:25, 20:25, 21:25, 22:20
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ	
Astegunak:	6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
Asteburuak eta jaiegunak:	15:40, 18:10, 20:10
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitalka)	
Astegunak:	6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55
Enpresa:	EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA	
Astegunak:	6:55, 15:10
Asteburuak eta jaiegunak:	6:55, 11:10
Enpresa:	EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK			
Aldalur	85 27 18	Bizkaibus (Eibar-Bilbo)	902 22 22 65
EuskoTren	15 06 77	Piper UnibertsitateElkartea	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO	
DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:	18:00, 20:00
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

EIBAR-ELGOIBAR-AZPEITIA	
Astegunak:	8:00, 15:10, 17:10, 21:10
Larunbatak:	10:10, 17:10, 21:10, 1:30, 3:30, 5:30
Igandeak eta jaiegunak:	10:10, 21:10
Enpresa:	Eusko Tren

LEIOA-BILBO-AZPEITIA	
Astegunak:	14:00, 20:00
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:00, 8:05, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 21:40
Asteburuak eta jaiegunak:	7:15, 9:15, 10:15, 12:15, 13:15, 15:15, 16:15, 18:15, 20:15, 21:15, 22:10
Enpresa:	EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00
Asteburuak eta jaiegunak:	6:35, 7:30, 8:30, 10:30, 11:30, 13:30 (2), 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 21:30
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da


ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
Asteburuak eta jaiegunak:	16:30, 19:00, 21:00
Enpresa:	EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitalka)-AZPEITIA	
Astegunak:	7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
Asteburuak eta jaiegunak:	8:45, 9:45, 11:45, 12:45, 14:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
Enpresa:	EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA	
Astegunak:	9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak:	9:30, 12:00
Enpresa:	EuskoTren

Herriko egutegiak argazkiz hornituta

adibidea dago. Bata, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak atera du. Bestea, Martinez inprimategiak bere 150. urteurrenean ateratakoa da. Eta hirugarrena Azpeitia-Azkoitia Agenda 21ek atera du.





1. ABUZZTUA.
Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformakoen egutegiko irudi bat. Solidarioa Indian ote?



2. AZAROA.
Azaroko egutegiaren berri irudi horrekin ematen du plataformak. Solidarioa iturri gainera igota.


3. URTARRILA.
Erresuma Batuko erret goardiaren atzean solidarioa. Plataformakoen urtarrileko irudia da.

4. MAIATZA.
Presoak Euskal Herriratzearen aldeko solidarioa irudi handi batekin.

5. ABENDUA.
Plataformakoen egutegiko irudi bat: abendukoa. Hemen ere solidarioa izararekin.

6. 150 URTE.
Martinez inprimategiak aurtan 150. urteurrena beteko du. Lehen, Bustinzuriko errebaletan zegoen.





7. AZAROA-ABENDUA.

Juan Joxe Agirrerena. Argazki positiboaren sailean lehen saria irabazi zuen.

8. IRAILA-URRIA.

Joxe Ramon Larrañagaren argazkia. Argazki positiboaren sailean saritua izan zen.

9. MAIATZA-EKAINA.

Luis Francisco Llavirrena. Argazki positiboaren sailean saritua izan zen.

10. AZAROA-ABENDUA.

Juan Joxe Agirrerena. Argazki negatiboaren modalitatean aurreneko saria irabazi zuen.



KARIDADEKO EGUN LAINOTUAK

Itxitsi zaizkigu gauetako argi egunak eta egun argitako egonaldi epelak eta argitzaletako irribarre merkeak eta kale kantoietako hotz bero estali kontrolatuak, etxe beroetako turroi gogorrek eta bigunak eta txokolatezkoak eta frutazkoak, nahi adina, gehitxo, gutxiengo batentzako eta gutxitxo gehiengoarentzako.

Egun hauetako ibilaldi neurtuak dendaz jositako zentroetara antolatzen dira. Nortasunik eta bizilagunik gabeko herrixkak bete-bete eginda egoten dira karidadeko egun lainotuetan, begiradak bidean galtzen dira eta betaurreko beltzak edukitzearen sentsazioa hartzen zaio leku horietako giroari. Lehiaketa kutsuko arratsaldeak bizitzen dira denda desberdinetako *ring*-etan, nork poltsa handiagoa altxatu esku batez, baietz bi eskurekin lau poltsa eramanez, baietz minutu batean bost praka pare probatu, ezetz! Azken batean, batzuk zer erosi ez dakitela eta beste batzuk ezer erosi ezin dutela.

Autoak ere distira berezia dariela irteten dira kaleara. Ia ispilu baten funtzioa betetzen dute, egun arruntetan baino mantsoago igaroz, jendez betetako kaleetatik. Urri erditik, apaingarri gisa jarritako porta eskia azkenean elur tresnaz beteta, nahiz eta oraindik elurraren ziurtasunik ez eduki.

Karidadeko egun lainotuetan herritarren bihotzak udaberri epeletako loreak bezala zabaltzen dira baina herdoil usaina darie, ia urte osoan leize batean bezala egon baitira, malko umelen zigorra bereganatuz. Ezagutzen ez dugun horrengana bideratzen gara, sentitzen eta pentsatzen ez dugu hori belarrira esatera, berdin zaigu erantzunik ez jasotzea, gaur bederen karidadeko egunak ditugu, nahiz eta lainoz estaliak egon, karidadekoak dira, ezta?

Karidadeko egun lainotuetan maitasunak sarrera erraza izaten du. Atzo maite ez genuena maitatzeko esfortzua egitea ez zaigu kostatzen. Besarkadak, supermerkatuetako eskaintzen antzera banatzen dira, besarkada lainotuak diren arren, besarkadak izaten jarraitzen dute. Urte osoan banatu ez ditugun muxu eta laztanak egun batean edo hobe esanda gau batean banatzen ditugu, ziztu bizian, azken gaua balitz bezala. Karidadeko egun lainotuetan maitasunak sarrera erraza izaten du, baina batzuegana muxu bat bera ere ez da iristen, eta haiek zain egoten dira.

Familiako egun lainotuetan eguzkiak ez du zirrikiturik aurkitzen bere besoak luzatzeko. Sutondoko arkume erreak urtean behingo eztabaida gozoezin

ESAERA.

Sua eta ura
morroi on,
nagusi gaizto

nahasten dira, irribarreak mahaiko protagonisten ahoetan errotulagailuz margotzen dira.

Karidadeko egun lainotuak eguzki egunak bihurtzea litzateke guztion helburua. Kaleko kartoia koltxoi bigun izatea eta frontoiak mendiko irudiz jositako gela epel. Karidadeko egun lainotuetan euriak batzuen aurpegia soilik bustitzen du eta euri horren tanta oro proportzioan banatzea litzateke egokiena eta eguzki epelak guztien azalak berotzea, inor erre gabe. Soilik igaro egun hauek eta hurrenarte.



URTARRILEKO AGENDA

As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

URTARRILAK 1 (osteguna)

• MENDIA.

Erlora (1.026 metro) mendi irteera, euskal presoek eskubideen alde. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan plazatik izango da.

URTARRILAK 4 (igandea)

• ERREGEEN PAJEA.

Erregeen pajeak egongo dira Enparantza Nagusian. 18:00etan.

URTARRILAK 5 (astelehena)

• KABALGATA.

Erregeen etorrera. Igerileku aurretik atera eta herriko kaleetan ibiliko dira; ibilbidea plazan bukatuko dute.

URTARRILAK 10 (larunbata)

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi-Txanela. 16:00etan. Kiroldegian.

URTARRILAK 11 (igandea)

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Amorebieta. 16:30ean. Garmendipen.

urtarrilak 13 (asteartea) • Euskal Soin Jarduerak



EUSKAL KIROLEKIAN LEHIAN. Azkoititik hasi eta Zumaira arteko ikastetxeetako DBHko 2. mailakoak euskal kiroletan lehiatuko dira abenduaren 13an, 09:30etik aurrera, Loiolako basilikaren atarian. Ikaspirotak antolatu ditu kirol ekitaldi horiek, eta bertako begiraleek lagunduta ariko dira sokatiran, txingekin...

URTARRILAK 12 (astelehena)

• ERAKUSKETA.

Josu Arrieta azkoitiarraren margolanen erakusketa izango da. Urtarrilaren 30a arte irekita izango da erakusketa. Astelehenetik ostiralera artean, 18:00etatik 20:00etara arteko ordutegian. Antxieta Etxean.

• MENDIAN FEDERATZEKO.

Mendian federatzeko eguna. Lagun Onak Mendi Bazkun. 21:00etatik 22:00etara.

URTARRILAK 13 (asteartea)

• EUSKAL SOIN JARDUERAK.

Euskal Soin jarduerak egingo dira, Ikaspirotak antolatuta. Azkoititik Zumaira arteko

liburue

Nerea Uranga

Eta ni zer?



• EGILEA: Fernando Morillo Grande • ARGITALETXEA: Elkar • BILDUMA: 'Taupadak' • IZENBURUA: 'Eta ni zer?' • GENEROA: Eleberria • ORRIALDEAK: 134 • SALNEURRIA: 8,45 euro

POLIT IZATEA KEZKA DENEAN

Elkar argitaletxeko Branka sailaren lekua hartu duen *Taupadak*, sail berrian argitaratu diren lehen bi eleberrietako bat da Fernando Morilloren *Eta ni zer?* liburua. 12-16 urte bitarteko neska-mutilentzako irakurgaiak eskaintzen ditu sailak. Hala, gazte literaturan argitaratu duen azken lan berria da Morillo azpeitiarrarena.

Eta ni zer? eleberriko protagonista Larraitx izeneko hamasei urteko neska da. Ez da batere polita sentitzen eta horregatik asko sufritzen du. Aldiz, bere ahizpa polita da eta honen atzetik dabilta inguruko mutil denak. Larraitx bakarrik dago, baina haurtzaroko lagun batekin topo egingo du.

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 Tel.: 629.688.193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



ARTE ETA DISEINU
IKASTEGIA

> Talla 19:30/21:00
> Pintura (helduak) 17:30/19:00
> Marrazketa eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00

Astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
943 - 81 28 08



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40



TORREALDAY

ginekologi kontseilariak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdai.com

ikastetxeetako, DBHko 2. mailako ikasleek parte hartuko dute. 09:30etik aurrera. Loiolan.

URTARRILAK 18 (igandea)

• SOKAMUTURRA.

San Sebastianak: herriko kaletan zezena ibiliko da. 16:30etik 20:00ak arte.

URTARRILAK 19 (astelehena)

• DANBORRADA.

San Sebastianak: herriko kaletan helduen danborrada, Udal Bandarekin. 22:15ean.

URTARRILAK 20 (asteartea)

• TXISTULARIAK ETA DANBORRADA.

San Sebastianak: Izarraitz Txistulari Taldearen eta Udal Musika Bandaren goiz eresia. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeen kalejira. 09:30ean.

• PROZESIOA.

San Sebastianak: herriko agintariak korporazioan meza nagusira. Herriko kaleetan prozesioa. 10:30ean hasita.

• SOKAMUTURRA.

San Sebastianak: plazan zezena izango da. 12:00etan.

• DANBORRADA.

San Sebastianak: Aranetik haurren danborradako bederatzi taldeak aterako dira, karrroja eta guzti. 12:30ean hasiko da.

• SOKAMUTURRA.

San Sebastianak: herriko ka-

urtarrilak 18 eta 20 (igandea eta asteartea) • Sokamuturra



18-AN, IGANDEAN ERE ZEZEKA. Aurtan San Sebastian bezpera astelehenean eta eguna asteartean egokitu direla-eta Udaleko Festa Batzordeak sokamuturra antolatu du abenduaren 18an, igandean (16:30-20:00). San Sebastian egunean ere sokamuturra izango da, bi aldiz (12:00-12:30 eta 16:30-20:00).

leetan zezena ibiliko da. 16:30etik 20:00ak arte.

• DANBORRADA.

San Sebastianak: herriko bandera jaistea. 24:00etan.

URTARRILAK 23 (ostirala)

• IKASTAROA.

Haur masaje ikastaroa (0-1 urte bitartekoentzat). Ikasbe-

rri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Irakaslea: Nerea Mendizabal. Bost saio izango dira, bi ordukoak, eta talde txikietan. Haurrekin batera guraso batek edo biek parte har dezakete ikastaroan. Izena emateko azken eguna urtarrilak 23 da. Urtarrilaren 28an hasiko da ikastaroa. Telefonoa: 943 15 12 46.

URTARRILAK 24 (larunbata)

• MENDIA ETA ESKIA.

Lagu Onak M.B.-k bi egunerako irteera antolatu du Candanchura. Aurrez izena emateko telefonoa 943 81 20 25 da.

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi-Errotaundi. 16:00etan. Kiroldegian.

URTARRILAK 26 (astelehena)

• MENDIAN FEDERATZEKO.

Mendian federatzeko eguna. Lagun Onak Mendi Bazkuran. 21:00etatik 22:00etara.

URTARRILAK 30 (ostirala)

• MAINDIRE ILADA.

Euskal Presoak Euskal Herri-ra lelo hartuta, eta Etxeratik deituta, hileroko maindire ilada. 19:00etan. Bariantean.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerra (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



BETIDANIKO
SUKALDARITZA

PARRILA. **Arraina**
eta haragia


BI JANGELA. **60 eta 25**
pertsonentzako tokia

ON EGIN!

Pablo VI Auzunea, 16
Tel.: 943 81 20 40
20730 AZPEITIA




Jizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@et.es



Olatz Arregi


Ikasle Alemaniyan

Bremeni begiratur



- Bi hiriburuk osatuteko lurraldie da Bremen. Alemaniko 16 lurraldeetatik txikiyena da.
- 681.722 lagun bizi dire.
- Industriye: itsas portu garrantzitsue da, automobilen industriye, elektronika eta altzairu eta untzi-industriye.
- Hizkuntzie: Alemana.

“Han, unibertsitatien lan pertsonala gehiyo egin beher dek”



Olatz Arregi ezkerrekue da. / OLATZ ARREGI

Olatz Arregi Bremen dago. Aleman filologiako azkeneko urte ikistera jun da harea. Ez da lehenengo aldiye Alemaniare jun dala; orain dala lau urte ere jun zan urtebete han pasatzera. Gabonak pasatzera Azpeitire etorri da eta hizketaldiye herriyen bertan izen du Uztarriarekin.

• Zer dela-ta orain berriz Alemanire?

Aleman filologiako karrerie ikisten ari nauk, azkeneko urte falta zitek bukatzeko. Alemanire jun nauk kurtso hori egitera, karrerie han bukatzeko, eta alemana ondo ikisteko.

• Lehen Metzingen egon hintzenan. Orain nun hago?

Orain Bremen natxiok, Alemaniko iparraldien. Lehen Metzingenen egon nintzenien, Stuttgart aldien, hegoaldien.

• Ze alde dago bi lekuen artien?

Bizimoduen ez zegok alderik. Jendie oso antzera bizi dek bi herri hoiyetan, baino ingurue oso desberdine dek. Metzingenen askoz mendi gehiyo zegok, iparraldie askoz lauago dek.

• Zenbat denborako jun haiz?

Irailien jun nituan eta uztailien bueltatuko nauk; hamar hilabeterako jun nauk.

• Ikisteko eran-eta alderik ba al dago?

Bai, desberdine dek. Alemaniyan asignatura bakoitzekin astien klaseko ordu bat edo bi badauzkek gehiyenez; hemen askoz gehiyo. Han lan pertsonala garrantzitsuago dek, liburutegiye-eta ordu asko pasatu behar dituk, liburu gehiyo irakurri beher... Han norbanako lanak gehiyo egin behar dituk.

• Eta bizimoduen?

Baita ere, Alemaniyan jendie askozaz gehiyo egoten dek etxien, indibidualistagie dek. Hemen koadrilan-eta ibiltzie inportantie dan bezela, han ez; kanpusion, kafeteiye eta gehiyenez biko edo hiruko koadrilak ikusten dituk.

• Zer botatzen den faltan?


Hemen Azpeitiye dauketen dana botatzen diat faltan, lagunek, familiye, itsasue... Dana.

Ion Aranburu

HANGO JENDIE. “Alemanak hasieran oso distantiek dituk euskaldunen antzera, baino gero oso jatorrak dituk”

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Kolog.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

15 URTE ZUEN ZERBITZURA!



LAZKANO - OLAIZOLA
Aholkularitza Inmobiliarioa

beste herrietan
ere egiten dugu lan

GURE ZERBITZUAK

GESTIOAK

Udaletxean
Erregistroan

Notarian
Gestorian

Aurrezki kutxa eta banketxeetan
Arkitektura bulegoetan...

AHOLKULARITZA

Salerosketetan

Alokatzeko garaian

Kontrato firmaketetan...

GURE ESKAINTZAK

Pabilioiak
Lur sailak

Etxebizitzak
Bulegoak

Lokalak
Garageak

Baserriak
Txaletak

Hainbat eskualdatze
...

ntiago kalea, 10-12 • Tel.: 943 1576 93 • Faxa: 943 15 76 94 • E-mail: lazcano-olaizola@euskalnet.net



an Juan Auzunea, 19
iri Eraikuntza
l. eta Faxa: 943 85 30 20
720 AZKOITIA



Sofa eta
atseden-sistemetan
aukera zabala

URTARRILEAN
Koltxoiaaren hila

%25eko
DESKONTUA

Aseguratu orain zure furgoneta Inork ez dizu merkeago eskainiko



- Oraingoan, abantaila gehiago eskuratu ahal izango dituzu Furgonetaren aseguruia kontratatzean.

Merkatuko preziorik onena eskaintzen dizugu. Zure ekonomiari egokitutako hainbat produktu eta prezio dituzu aukeran; gainera, 24 orduko bidaia-laguntza izango duzu urteko 365 egunetan, eta, hori guztia, jakina, betiko kalitate-zerbitzuaren bermearekin.

	Hirugarrenekiko aseguruia beirak barne	Arrisku oroko aseguruia
Renault Express 1.4	251,30 € 41.813 pta.	479,10 € 79.716 pta.
Citroen C15 D	253,78 € 42.295 pta.	518,92 € 84.341 pta.
Citroen Berlingo 1.6 SX	261,09 € 43.443 pta.	575,05 € 94.088 pta.
Mercedes Vito 2.2. Combi	383,09 € 63.741 pta.	1.027,45 € 170.353 pta.

Prezioa kalkulatzeko
45 urteko gizonetzkoa
hartu da eredu gisa,
15 urteko gida-
baimena eta %30eko
deskontua duena



Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika




Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Informatika zerbitzu teknikoa



Periferikoen salmenta eta konponketak



Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



WEB orrien diseinua eta mantenua



Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Euskaltel Leihoa



Komunikazio osoa puntu bakarrean zure etxean

Cambio direccion

☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean 7

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☐ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Be
Telf: 943133385

Banatzale Ofiziala
Euskaltel



AZPEITIKO UDALA

Ondo pasatu festak!

